

# Arrasate

P R E S S

1999ko  
Maiatzak 21  
452. zenb.



## AKP: Kirolean hezitzen

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • GURE ENPRESAK: MECA

EUREN IKUSPUNTUTIK: MIKEL LEZAMIZ • KULTURA ELKARRIZKETA: HIBAI GARAI

# Euskal Eskola Publikoa Eraikitzen

# Zure etorkizuna eraikitzen



## Batxilergo guztiak

- Natura eta Osasun-Zientzien Batxilergoa
- Giza eta Gizarte-Zientzien Batxilergoa
- Teknologia Batxilergoa

## Bide irekiak

- Ikasle bakoitzari egokitutako bideak

## Hizkuntzak

Eskaintza zabala:

- Ingelesa
- Alemaniera
- Frantsesa
- Italiara

## Modalitate eta Aukerako ikasgaietan oso eskaintza zabala

- Elektroteknia
- Ordenagailu bidezko marrazketa eta diseinua
- Mekanika
- Ekonomia eta enpresa antolaketak
- Jarduera fisikoa, aisialdia eta osasuna
- Laborategi teknikak
- Psikologia
- Antropologia

## Erdi Mailako Zikloak

- Ibilgailuen elektromekanika
- Erizaintzako zaintza osagarriak
- Soldadura eta galdaragintza
- Kontsumorako ekipo elektronikoak

## Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Galdaketa eta pulbimetalurgiaren bidezko produkzioa

## Aurre-inskripzioa

*Ekainaren 1etik 9ra*

## Matrikula

*Uztailaren 1etik 9ra*



BERRI GEHIAGORAKO



**ARRASATE:** 943 79 83 00 / 943 79 44 47  
**ARETXABAETA:** 943 79 79 00 / 943 79 79 43

**Arrasate  
aretxabaeta**  
I N S T I T U T U A

# Naturaren legea vs. gizakiaren legea

**H**onela entzun izan dugu askotan: naturan indartsuak zanpatzen duela ahulago dena, naturaren legea indartsuenaren legea dela, espeziea horrela hobetzen dela... Eta horrek justifikatu izan du, sarri, historian zehar gertatutako hainbat eta hainbat basakeria. Zenbait adituk esan eta idatzi izan du, gainera, basakeria horiek beharrezkoak direla: gerren kasuan, biztanleriaren hazkuntza kontrolatzeko balio omen dute eta ziklikoki horren beharra egoten omen da. Hortaz, gerra ez da inoren handinahi eta gorrotoa, fenomeno naturala baizik. Horra hor!



Karmele Perez

du gizakiak naturaren eredutzat, hori eta inurritegiaren figura: erregina gutxi eta langile eta soldadu asko. Eta argi ibili, globalizazioaren globalizazioaz, mundua inurritegi bakar bihurtzen ari baitzaigu, erregina bakarra munduan.

Ahazten ari zaio gizaki zibilizatuari, natura lankidetzaren eta osagarritasunaren eredu ere badela, eta hori

dela batez ere. Izan ere, natura edo oihana zerbait badira, etengabeko sorkuntza eta biziberritzearen funtsa baitira. Asfaltoa ere bai?

Naturaren legeak hondamendia ekarri duenean ere, berorrek jarri ditu berrantolatze eta birsortze haziak.

Gizakiaren legeak, aldiz, naturaren legeak barra-barra hausteari ekin dio. Beste gauza askoren artean, pozoia jarri du airean, lurrean, naturaren eta gizakiaren ariman bertan. Eta gizakiak berorren

ariman jarritako pozoia horrek jainkotu egin du gizakia, natura eta bizia bera txiki-txiki egiten dituen bitartean. Ez da, bada, kontraesan makala, ez horixe!

Gure zoritxarrerako, munduaren gidaritza ideia horiek daramate. Gaur egun, pertsona apala izatea eta bizimodu apala bizitzea, horrela bizi diren askorentzat zigorra da; horrela bizi nahi duten askorentzat, ametsa. Hori ere ez da, bada, kontraesan txikia.

Honez gero, argi geratu da naturak kontraesanak jarri dituela gure bizimoduan, sarri, gizakiak naturaren legeak gaizki interpretatu dituelako edo momentu bakoitzean komeni zitzaiona hautatu duelako. Behar bada, Adan eta Evaren garaitik gabilta nahas-mahas. Izan ere, paradisuak naturarekin bat egiten zuen eta haiek paradisuak bota zituzten. Baina naturako beste elementuak ez zituzten bota eta gu haiekin bizi gara oraindik ere. Beraz, haiek ez ziren fisikoki atera paradisuak, mentalki baizik. Eta, badirudi, harrezkero gizakia bazterrak nahasten eta interpretazio okerrak egiten ari dela etengabe. Istorio horrek balio dezake, behar bada, gizakiaren legea ulertzeko. ■

Eta adi: basakeria hitza bera basotik dator, baita basatia ere. Gizakiak basakeriari oihaneko legea deitu izan dio eta, ausardiaren ausardiaz, hiriri asfaltozko oihana. Hori hartu

**“Gizakiaren legeak naturaren legeak barra-barra hausteari ekin dio”**

*“Udalbatza osatzen genuenon artean zegoen giroarekin eta gaurko diruarekin, gozada bat izango litzateke udaletxean lan egitea”*

Jose Antonio Altuna

**25**

egun egin ditu  
**Pilar Mondragonek**  
gose greban

Gaur amaitu du Pilar Mondragon iheslari arrasatearrak, Fleuryko espetxean, Frantziako auzitegiak ezarritako kartzela zigorra. Espainiara eraman dezaketelako beldur, gose greban izan da 25 egunez.

BAZENEKIEN?

## Tejero Arrasaten

1976ko abenduaren 12an Errobi taldeak kontzertu bat eman zuen Gurea zineman. Antzokia, beteta. Agertokian, ikurriña. Goardia Zibilaren hiru jeep ailegatu eta eten egin zuten ekitaldia. Gomazko pilotak, ke poteak eta benetako balaren bat edo beste. Zauritu pilo.

Biharamonean Arrasateko Udalak Goardia Zibilaren kanporatzea eskatu zuen. Eguerdian Tejero Teniente koronelak J. A. Altuna alkateari koartelera deitu zion. “Atzo gertatu zenaren erantzukizun osoa nirea da, neuk agindu nuen ekitaldia etetea”, Tejerok. “Baina orain aste-bete Realeko eta Athleticeko jokalariek ikurriña atera zuten Atotxan gobernadore zibilaren aurrean eta ez zen ezer gertatu”, Altunak. “Nik ez daukat kulparik gobernadorea marikoia baldin bada”, Tejerok.

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Olatora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Anartzabal. **Kazetariak:** Marijo Desgracias, Ubane Madera, Maider Oca. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla, Arantza Arroite. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Administrazioa:** Agurtzane Gaiñzarain (Tel.: 943 71 23 90) **Disenua:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemaileak:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa ardura:** Jaxone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta inizietzen erantzukizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuan egiten da.

Azala: Gontzal Landa.

Amasateko Udaleren laguntza  
Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza  
Eusko Jaurlaritzako Kultur Saileraren laguntza

## GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 21**  
 • Gauez eta egunez: Irizar, Erguin
- Larunbata, 22**  
 • Gauez eta egunez: Amezua, Santa Marina
- Igandea, 23**  
 • Gauez eta egunez: Zabala, Zarugalde
- Astelehena, 24**  
 • Gauez eta egunez: Ruiz, Maala
- Astearte, 25**  
 • Gauez eta egunez: Morales, San Andres
- Asteazkena, 26**  
 • Gauez eta egunez: Azkoaga, Ferrerías
- Osteguna, 27**  
 • Gauez eta egunez: Español, Iturriotz

## BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetzak**  
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
 Iguatoriora ..... 943 79 05 00  
 Santa Agedako Ospitalea (gizonak) ..... 943 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 943 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
 Bergara ..... 943 76 55 76
- DYA**  
 Antzuola ..... 943 78 71 57
- Anbulatorioak**  
 Arrasate (Larrialdia) . . . 943 03 53 00  
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 03 52 50  
 • Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
 • ikuskatzailea ..... 943 03 53 52  
 • Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11  
 • Fax zenbakia: 943 03 05 14  
 Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
 Aramaio ..... (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**  
 Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
 Onati ..... 943 78 04 11  
 Bergara ..... 943 77 91 06  
 Arrasate ..... 943 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
 Eskoriatza ..... 088
- Ertzaintza**  
 Arrasate ..... 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
 Udal taldea ..... 943 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088
- Matxurak**  
 Urak (udal zerbitzua) . . . 943 79 09 00  
 Argindarra (Iberduero) . . . 943 12 01 62  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 ..... 943 79 78 44  
 ..... 943 79 76 78
- Garraioak**  
 Taxiak ..... 943 79 12 22  
 PESA. .... 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
 Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburutegia**  
 Monterron ..... 943 77 01 05
- Irratia**  
 Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## GOAZEN ELKARREKIN LANTOKIRA!

Honelako ekimen bat behar guke gure eremuan. Hori ekarri digu gaur burura norbaitek, eta bat-batean agertu dira zergatiak eta abantaila desberdinak. Gutariko bakoitzari arrazoi desberdinak bururatu zaizkio. Hona hemen hauetariko batzuk:

- CO<sub>2</sub>en gehikuntza izugarriak kalte larriak eragiten ari da mundu osoan, eta honen jariora gutxitzeko premia handia dago. Datorren belaunaldiak biziko badira, neurriak hartu beharra dago. Has gaitetzen egitasmo honekin, eta goazen elkarrekin lanera! —esan du ozenki batek.

- Lur industrial gutxi omen dugu gure bailaran, zioen beste batek, eta gehitu du, baina hala eta guztiz ere, dagoena behar bezala ustiari beharrezan, lantegi desberdinetan ehundaka metro karratu erabiltzen dira aparkalekuetarako.

- Gure gizartean bizi dugun indibidualismoa argi eta garbi azaltzen da gure inguruko lantegietara sartu eta bertatik irteten diren autoak ikusita. Gehienetan pertsona bakar bat besterik ez da joaten, eta horren ondorioz, auto ilara izugarriak sortzen dira ordu jakin batzuetan. Zergatik ez gara saiatzen ohitura oker hau apurtzen, egunero halabeharrez egin behar dugun gauza bat, lanera joatea, modu kolektibo batean eginez? Proba bat gitegera animatzen zaituztegu.

Hemen azaldu direnak eta gehiago ere badaude, eta denok dugunez ohiturak aldatzeko beharra, industria desberdinetako arduradunei eta baita administrazio publiko guztiei eskatzen diegu beharrezkoak diren ekimenak bul-tza ditzatela, kontzientziario maila bat lortzeko.

*Eibar-Gazteiz  
 Autopistaren Aurkako  
 Deba Garaiko Taldea*

## ARRASATE EUDIMAN?

Arrasateko Udalak osoko bilkuran hartutako erabaki batean Udalerrri Intsumituen Mankomunitate honetako partaide izatea onartu zuen. EUDIMAREN partaide izateak duen helburu nagusia erakundeekin elkarlanik ez egitea, soldadutzara deitzen dituzten "mozo" horien zerrenda ez ematea, besteak beste.

Bestalde, beste edozein erakundek edo elkartet bezala, EUDIMAK diru iturriak behar ditu bere ekimenak aurrera atera ahal izateko. Horiek udalek ordaindu beharreko ordain sarien bidez lortzen dira.

Loiti Arrasateko alkate dugunetik ez ditu bete osoko bilkura batean hartutako erabakiak, zeren Espainiako armadari zerrendak eman eta herriko gazteei soldadutzara joateko gutuna bidali baitie.

Erabakia ez betetzeaz gain, ez du ez erantzunik ez eta argibiderik ere eman udal bilkurretan azalpenak eskatu zaizkionean.

Arrasaten EUDIMAREN batzar bat egin zenean, udaleko gobernu taldeko zinegotzirik ez zen joan. Huts honen aurrean ere ez dute azalpenik eman, isilatsuna besterik ez!

Prozesu demokratiko bat abian jarri dugun garaian, Lizarra-Garaziko haize beroa dugunean, gure herria eraikitzen ari garen garai hauetan, Espainiako armada bezalako erakunde antidemokratiko eta inposatzailea "non grata" beharko luke izan Hego Euskal Herrian.

Gure herriko etorkizuna diren gazteak "gizon" egiten dituen, balore matxista, iherarkiko, antidemokratiko eta inposatzaileak erakutsi nahi dituen erakunde batera ez ditugulako bidaliko, datorren hilaren 22an Iruñean EUDIMAK deialdia egindako kale agerraldira joatera animatzen zaituztegu, hori guztia aldarrikatzera.

*Arrasateko  
 Herri Batasuna*

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
 Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN**  
 jatetxea

Garagartza auzoa  
 Tel.: 943 79 76 58  
 ARRASATE

**M**

**MEMESA**

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

# Euskal Herrian Okela ona dugu



Informazio gehiago telefono honetan

## 901 50 55 55\*


\* Telefono zenbaki hau 1999ko maiatzaren 3tik ekainaren 15era erabil daiteke.

Kalitateko Euskal Labela duen abelgorri okela **osasuntsu, zapoetsu eta naturala.**

EUSKO LABEL



KALITATEA



EUROPAKO ELKARTEAREN  
PARTAIDETZAREKIN FINANTZATUA



Labeldun okelen  
salmentan duten  
espezializazio maila  
handia dela eta, ikur  
honekin (►) adierazitako  
Harategi Baimenduek  
ARTISAU ERAKO  
HARATEGI  
ESPEZIALIZATUEN  
saikapena dute  
Kalitateko Eusko Labela  
duten produktuetan

#### ARRASATE O MONDRAGON

▶ LANDALUZE HARATEGIA  
Iturrioz Kalea, 7

▶ AZPILIKUETA HARATEGIA  
Doctor Bañez, 10

ESPARZA HARATEGIA  
Avda. Alava, 14

ELORZA HARATEGIA  
Juan Bengoa, 1

JOSE M<sup>o</sup> SALEGI HARATEGIA  
Olarte, 20

J. RAMÓN OTAMENDI  
HARATEGIA  
Ferrerías, 20

AZPILIKUETA HARATEGIA  
Erguin, 12

#### ESKORITATZA

CARNICERÍA ZUBIA  
Santa Ana, 11

EROSLE-ESKORITATZA  
Aranburuzabala, 3

#### ARAMAIO

BIXENTE L. AZPILIKUETA  
HARATEGIA  
Bixenti Goikoetxea Plaza, 8



MAIATZA

# DANTZAN

## BALLET BIARRITZ

AMAIA ANTZOKIAN

Maiatzak 22, Larunbata, 20:00etan.

Prezioa: 1.000 pta (Gazte-Txartelarekin: 800 pta)

Koreografiak: Mozart á 2, Pierre de lune, Blé noir, Ouverture Cubaine



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Euskara Departamentua



ARRASATEKO UDALA

Kultura Salla ■

# Oraingo udalak zer utzi du egiteke?

Oraingo udal gobernua bi urte izan ditu bere lana egiteko.



**Felix Arriaran**  
(41 urte)  
Tabernaria

Gauza asko esango nituzke, baina beharbada, bat aipatzearren, ijitoekin izandako arazoak.



**Idurre Salegi**  
(17 urte)  
Ikaslea

Gazte jendari ez dio bat ere lagundu tokiak-eta bilatzen. Nire iritziz, ez du ezer lagundu.



**Maria Luisa Domingo**  
(58 urte)  
Etxekoandrea

Uribe auzoan, adibidez, badugu konpondu beharreko isurbide bat. Zaborraren arazoa ere hor dago.



**Arantza Atienza**  
(34 urte)  
Langilea

Herri honetan beti daude lanak egiten. Berdegune gehiagore eskatuko nituzke.




**Ander Ugalde**  
(20 urte)  
Ikaslea

Ez nago bat ere ados gaztetxearekin eta ijitoekin izan duen jarrerarekin.



**Iñaki Larrañaga**  
(32 urte)  
Langilea

Ez du bat ere konpondu drogaren arazoa. Politikaz asko hitz egiten dute, baina gero drogari buruz, bat ere ez.



**Epifanio Lopez**  
(67 urte)  
Erretiratua

Gure auzoan, esaterako, Erguin aldean, ez dute oraindik konpondu putzuekin dugun arazoa.



**Asun Uribe**  
(36 urte)  
Langilea

Aparkalekuak eta kaleko aparkalekuan egindako konponketak oso gaizki egin ditu.

**Sagardotegia**



**ITURROIETA**

Astelehenerik asteazkenera enkarguz.  
Ostegunetik igandera zabalik

MENU ESKAINTZARIK ZABALENA AUKERAN

Arraga auzoa  
Tel.: 945 44 53 85  
ARAMAIO



Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar

**MATERIALEN SALMENTA**

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale Txiki, 3 - beheka • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

# 22

## larunbata

### ■ ZINEA

*La Vida es bella*, Alai zine-  
man, arratsaldeko 17:00etan,  
19:30ean eta 22:00etan.

### ■ AKP AZKEN JAIA

Arrasate Kirol Proiektuak  
azken jaia ospatuko du. Goi-  
zeko 10:00etan bizikleta irte-  
era Aramaiora egingo du. Itzu-  
leran sari banaketa, Iturripe-  
ko kiroldegian.

### ■ CIM EGUNA MUSAKOLAN

• 09:30ean fanfarrea kalez  
kalez eta Txu-Txu trenan (Gari-  
bain egongo da 10:30etik  
12:00etara eta 16:00etatik  
18:30era).

• 11:00etan haurrentzako  
jolastokia, lantegiak eta gura-  
soentzako txokoa zabalduko  
dira

• 11:30ean Telma haur  
jaia.

• 13:00etatik 14:00etara  
kalejira, kaletik kiroldegira

• 16:30etik 18:00etara  
Oiloloke Xoua

• 20:00etatik 21:15era,  
Mariatxiak

• 21:15ean ogitartekoak  
14-18 urte artekoentzat

• 22:00etatik 02:00etara  
diskoteka

• Al Andalus, Corazon de  
Encina eta Galiziako etxeek  
ere hartuko dute parte CIM egu-  
nean

### ■ 64. URTEMUGA

1935. urtean jaioakoe  
64. urtemuga ospatuko dute.  
19:00etan meza parrokiari eta  
20:00etan txikiteoa. Afaria  
21:00etan izango da, Mon-  
dragon Hotelean.

### ■ 47KO SOLDADUGAIK

San Joan parrokiari meza  
izango dute 12:00etan eta  
14:30ean, bazkaria Udalpen.

### ■ AMAIKA GAZTE ELKARTEA

25. urteurrena ospatuko  
du elkarteak. Horretarako  
12:30ean hildako guztien ome-  
nezko meza izango dute San  
Frantziskon eta 14:30ean  
Amaika Gazte elkartearen baz-  
kideentzako bazkaria.

### ■ ESPIRITU SANTUAREN OTOITZA

Kontzeziñoko mojen  
komentuan gaueko 21:00etan  
Espiritu Santuaren otoitza  
egingo dute, urtero legez.

### ■ MAIATZA DANTZAN

Miarrizteko Balleta izan-  
go da Amaia Antzokian gaue-  
ko 20:00etan. Maiatza Dan-  
tzan ekitaldiaren barruan "Blé  
Noir", "Mozart'a 2" eta  
"Ouverture cubaine". Sarre-  
ra 450 pta; gazte txartelare-  
kin, berriz, 400 pta.

### ■ JAIA JAM ARETOAN

Bergarako jaiak direla eta,  
jaia antolatu du Jam aretoak,  
22:00etatik aurrera *Whites-  
nake* taldearekin. Emanaldia-  
ren ostean, goizeko 03:00ak  
aldera, dantzaldia hasiko da,  
Euskal Herriko DJ onenekin.

# 23

## igandea

### ■ ZINEA

*La Vida es bella*, Alai zine-  
man, arratsaldeko 17:00etan,  
19:30ean eta 22:00etan.

### ■ MENDI FEDERAZIOAREN EGUNA

Euskal Herriko Mendi  
Federazioaren 75. urtemuga  
ospatuko dute mendizale guz-  
tiek Elgetan. Besaidek ere  
irteera antolatu du Elgetarai-  
no, Kanpazartik Intxortara eta  
handik Elgetara. Goizeko  
08:30ean irtengo dira, Gari-  
bai kaletik. Ekitaldiei dago-  
kienez, 11:30ean meza eta  
alde guztietatik datozen men-  
dizaleak elkarteak; 12:15ean,  
Asentziotik jaitsiera, trikitila-  
ri eta guzti; 13:30ean ekital-  
di ofiziala Mendizaleen pla-  
zan eta plaka baten inaugura-  
zioa, trikitilariak, dantzariak  
eta abesbatzek alaitua. Sebas-  
tian Lizaso, Andoni Egaña  
eta Ainhoa Agirreazaldegia  
bertsolariak ere hantxe izan-  
go dira. 14:30ean herri baz-  
karia eta 17:00etatik 20:00eta-  
ra Maixa eta Ixiar arituko dira,  
Mendizaleen plazan.

### ■ AMAIKA GAZTE ELKARTEA

25. urteurrena ospatuko  
du elkarteak. 12:00etan lun-  
txa Amaika-Gazte elkarte  
bazkide, lagun eta senideen-  
tzat.

### ■ ARABAKO ERRIOXAKO ARDO DASTATZEA

Arabako Errioxako 15  
herritako 65 bodegatako ardo  
lortu dute Araba Euskaraz  
99ko antolatzaileek eta eguer-

diko 12:00etan txoznak jarri-  
ko dira Arbolapetan, Sebero  
Altuben eta udaletxe parean,  
ardoa probazeko. Musika eta  
txorizoa ere ez dira faltako.

### ■ KULTUR ERROTA

Iñaki Salvador pianojoe-  
lak eta Kirikoketa taldeak (txa-  
lapartariak, Jesus Artze) elka-  
rrekin joko dute. 18:00etan  
Mondragon Hoteleko Kafe-  
Pianoan.

# 24

## astelehena

### ■ ZINEA

*La Vida es bella*, Alai zine-  
man, arratsaldeko 19:00etan  
eta 21:30ean.

# 25

## asteartea

### ■ ZINEA

*La Vida es bella*, Alai zine-  
man, arratsaldeko 19:00etan  
eta 21:30ean.

### ■ KANPO ZORRA

Harreman taldeak "Kan-  
po zorra, betirako zorra" izen-  
buruko hitzaldia antolatu du  
Monterronen 19:00etan. Hiz-  
laria Maite Orue izango da,  
Intermon taldeko kidea.



■ **INSTITUTUA IKUSTEN**

Arrasate-Aretxabaleta Institutuak "Institutua ikusteko eguna" antolatu du, 18:00etan, DBHko 4. mailan dauden ikasle eta gurasoentzat. Bilera ere egingo da: batxilergoari buruzkoa Arrasateko Institutuan eta Heziketa zikloena Aretxabaletan.

■ **GLOTODIDAKTIKA IKASTAROA**

AEK-k glotodidaktika ikastaroa antolatu du uztailerako. Izen emateko 943 77 03 69an, ekainaren 4a baino lehen. Saioak uztailaren lehenengo astean hasiko dira.

■ **EUSKARAZ EPAITEGIETAN**

Euskal Herrian Euskaraz taldeak sinadura bilketa egingo du maiatzaren 22an, justizia administrazioan euskararen erabilera legez arau dadin.

■ **ARGAZKI LEHIAKETA**

"Gazteak eta 2000. urtea" X argazki lehiaketa eratu du Gazteria eta Emakume Sailak, ASA taldearekin batera. Izenak aurkezteko epea urriaren 8an amaituko da. Sariak 75.000 eta 50.000 pta.koak izango dira. Berri gehiago udalaren Gazte Zerbitzuan edo 943 77 00 65 zenbakian.

■ **SASKIBALOI ENTRENATZAILEA**

Gipuzkoako Saskibaloiko Federazioak saskibaloiko entrenatzaile titulua lortzeko ikastaroa antolatu du. Ikastaroa Musakolako kiroldegian izango da, uztailaren 1etik 15era bitartean. 16 urtetik gorakoei zuzendua dago eta 15.000 pta kostako da. Izen ematea ekainaren 8a baino lehen egin beharko da, Musakolako kiroldegian edo 943 77 16 77an.

■ **JABILOREN ALDEKO ERAKUSKETA**

Jabilorekin lan egiten duten lagunek, Santamañako Margo Taldeak eta Arrasateko Margo Taldeak arte erakusketa jarri dute ikusgai Harresi Aretxean. Erakusketa maiatzaren 30a arte egongo da zabalik 18:00etatik 20:00etara astean zehar. Larunbat eta jai egunetan, berriz, goizeko 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

■ **FUTBOL BEGIRALE IKASTAROA**

Deba Baitarako Euskara eta Kirol Zerbitzuak futbol begirale ikastaroa antolatu du, Gipuzkoako Futbol Federazioarekin batera. Ikastaroa ekainean hasiko da, asteazken eta ostiraletan eta guztira 30 ordu izango dira. Ikastaroa euskaraz izango da. Berri gehiago 943 77 16 77 edo 943 79 64 61 zenbakietan.

■ **LA MERCEDEKO IKASLE OHIEI**

La Merced Ikastetxeko ikasle ohiek urteko afaria egingo dute ekainaren 5ean. Izen emateko azken eguna maiatzaren 27a izango da, Lore lurrindandian (Marisa).

■ **EH-REN OHARRA**

Euskal Herriarrok alderdiak bulegoa jarri du Arrano tabernan, posta bidezko botoari buruzko informazioa jaso nahi duenarentzat. Zabalik izango da, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostiralera bitartean.

# 27 osteguna

■ **ZINEA**

Sexualitateari buruzko zine zikloaren barruan, *La Belleza de las cosas* filma eskainiko da Amaia antzokian, 21:30ean. Sarre

## Eskelak ATBn

Datorren astetik hasita, ATB eskelak ematen hasiko da. Egunero, albiste aurrerapenaren ostean, 13:40an eta Berriak albistegiaren ostean, 20:20an, 20:50ean eta 21:20an.

Eskelak jarri nahi dituenak deitu 943 71 23 91 telefonora.



## HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiraletan 5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

## beatriz


oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11  
Tel.: 943 79 14 33  
ARRASATE

## TTUKUN

Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62



Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**MARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABAleta  
Tel.: 943 79 08 07

**USTEAK USTE**

*Motorzaleak*

**I**kuskizun ederra eskaini zuten joan den asteburuan Arruene inguruan handik eta hemendik etorritako motorzaleek. Motorzaleen Elkarteko kideak harro egon daitezke, lan neketsuaren ostean, emaitza oparoak jaso dituztelako.

**Harrigarria da ikustea nola urte gutxi batzuen buruan zernolako arrakasta lortu duen urteroko bilkura honek. Adin, sexu eta maila guztietako jendea hurbildu zen, ikusminak jota, inguru hartan zegoena mirestera: motorrak, larruzko jantziak, kasko ikusgarriak eta estilo desberdinetako Harley Davidson harrigarriak, besteak beste.**

**Tribu berezia osatzen dute motorzaleek. Han ere, Jainkoaren baratzean bezala, denetarik dago: dirudunak, alproja itxurakoak eta mekanika zaleak, batzuk besterik ez aipatzearen, baina denek dute zerbait komunean: motorrekiko zaletasuna edo maitasuna. Lehen arrotzak egiten zitzaizkigun. Gaur egun, berriz, hurbilago sentitzen ditugu.**

**Motorzaleen Elkarrekin badu horretan zerikusirik. Segi horrela!**

Joxe Aranzabal



**35 lanorduko astea**

\* Mikel Lezamiz

**L**angabezia gure gizartearen arazorik larrienetarikoa bat da. Lanaren bidez, bere eginaren orde hartzen ditugun xoxek, beharrezkotzat jotzen ditugun gaiak erosteko aukera ematen digute. Beraz, lanaren balioa uka ezinezkoa da.

Gure gizarte ekonomikoaren antolaketak badirudi beharrezkotzat jotzen duela langabezia maila bat izatea bere izaera lehiakorrari eusteko, eta inoiz ez dugula ezagutuko langabeziarik eza, iraupen luze eta iraunkor batean behintzat.

Hala ere, oraingo langabezia maila hauek hain handiak direnez, politikariek, enpresarioek eta ekonomistek onartzen dute langabezia jaitsi egin behar dela, gizarteko harremanak apur ez daitezen. Hori lortzeko bide bi daude: bata, lanpostu berriak sortzea, eta bestea, dagoen lana gehienon artean banatzea, lanorduk gutxituz. Lehenengoa betetzeko badirudi ezinezkoa dela horrenbeste lan-

postu sortzea epe luze handi batean, edo gazte multzo berrien uholdekadek ez dutela utziko langabezia maila jaisten. Bestalde, dagoen lana guztion artean banatzeak hogeita hamabost lanorduko astea aldarrikatuz, eztabaida handia sortu du.

Administrazio publiko-toki batzuetan jadanik jarria dute ordu kopuru hori eta lantegi batzuetan ere horren aldeko planak egiten hasiak dira. Herrialde batzuetan, bestalde, Alemanian esate baterako, hogeita hamabost lanorduko astea gainditua dago eta hogeita hamabiko asteaz eztabaidatzen ari dira.

Argi dagoena zera da,

“  
Bada bide garbiago bat langabezia gutxitzeko: aparteko orduak kentzea  
”

asteko eta eguneroko lanorduk gutxitzen ari direla historian zehar, eta hori horrela izango dela etorkizunean ere. XXI. mendean produktibitate pertsonako asko areagotuko da eta XX. mendean izan diren hazkundeak baino askoz handiagoak etorriko zaizkigu, teknologia berriei esker, bai industrian eta zerbitzuetan ere, eta horri esker, eta laneko bizitzaren kalitate hobekuntzari esker, lanorduk gutxitzen joango dira.

Gehienak alde daude lanorduk gutxitzearekin, baina ez datoz bat nola izango den ondorengo kibraketa: lehen beste irabaziz ala portzentaia berdinean gutxituz. Lanordu gutxiago eginez gero, kibraketa ere badirudi txikiagoa litzatekeela, baina produktibitate hobekuntzaren ondorioz, horrek lagundu egin beharko luke diru kibraketak mantentzen.

Hala ere, badago ekintza garbiago bat langabezia gutxitzeko: aparteko orduak edo lanordu estrak oso osorik kentzea edo bat ere ez ordaintzea. Behar beharrezkoak direnean, egin daitezke, baina ordaintzearen orde jaiegunak hartuz. Horrekin bai konponduko genuke arazoa zati handi batean eta lanorduk gutxitzearekin batera, konponbidea jarri langabeziari. Langabeziaren arazoa denon lana da eta guztion erantzunaren zain dago.

\* Soziologia



**Zuri Garbiketak**

- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 943 71 48 45 ESKORIATZA

**UGARTE**


**Industria hornidurak**

Arrasate pasealekua  
Tel.: 943 - 79 83 96 / 943 - 79 23 00  
Faxa: 943 - 793412

EUSKALDUNON

# GIDA

KOMERTZIALA



99

Profesionalen zein merkataritza alorreko zerbitzuen helbide eta telefonoz osatua.

- 80.000 aleko tirada.
- Kolorez ilustratua.

**Gidaren edukia:**

**Informatiboa:**

Euskal Herriari buruzko informazio eta datuak.

**Komertziala:**

banaketa sailkatua.  
Herrialdeka,  
Profesioak, Herrika.

Maiatzaren 23an  
**DOAN**

**Egunkaria** rekin

## Arrasate

### LANAK

#### OTALORAN

Pilotalekua egiteko lanak.

#### URIBARRIN

Aparkaleku lanak eliza ondoan.

#### AGERRE PLAZAN


Oraindik ez dira lanak amaitu.

#### A-20 ETA ZALDISPEN

Oinezkoen pasabidea egiten hasi dira.

#### JOSE LUIS IÑARRAN

Errepidea konpontzeko lanek segitzen dute.



**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**

## Eguraldiaren aurreikuspena



**OSTIRALA 21**

Erdi lainotua izango da ostirala. Eguerdia arte euria egin dezake. Temperatura ez da aldatuko.



**LARUNBATA 22**


Lainoak areagotuko dira egunean zehar, erabat ilundu arte. Haizeak Ipar-ekialdetik joko du.



**IGANDEA 23**

Lainoak gutxitzen joango dira arratsalde parterako. Haizeak Iparraldetik joko du eta temperatura ez da aldatuko.

## Ilargia



**Ilberria**

Larunbat gauean ilgora izango dugu, izan ere, maiatzaren 30ean ilargi bete izango dugu eta.

## Mezak

### Parrokia

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

### Igandean:

09:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

### Igandean:

09:00 (euskaraz)  
10:00 (erdaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz).  
12:30 (erdaraz)  
19:00 (elebiduna)

### Uribarri

**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

### Igandean:

11:30 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

### San Andres

**Ostiralean**  
18:30 (Otoitz ordua)

### Larunbatean

18:30 (Bezpera abestiak)  
19:00 (elebiduna)

### Igandean

10:00 (erdaraz)  
11:00 (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

### Santa Teresa


**Larunbatean**  
19:00 (elebiduna)

### Igandean

10:30 (erdaraz)  
11:30 eta San Isidron (euskaraz)  
12:30 (erdaraz)

**Urkuluko uraren maila**

**%98,2**



## Urteurrena

- Deba Garaiko LABek Ertzaintza salatu zuen espiotza egitearren.
- Xabier Patxi Canelok urrezko astokiloa lortu zuen.
- Zoroklasikoak, Arrasate Irratiko musikal klasiko saioak 100. saioa bete zuen.

# ERNE GAZTE, HEZIBIDEREN

## ALDEKO APOSTUA

## ERRENTA SEGURUA



**HEZIBIDE**  
Hezkuntza Taldea

### ALMEN ESKUALDEKO IKASTOLA ETA

#### ARRASATEKO IKASTOLA

SAN FRANTZISKO XABIER - SAN VIATOR

bi aukera anitz bezain osagarri  
honako ikasketak egiteko

### 1 BATXILERGO AUKERA GUZTIAK

- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
  - GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
  - TEKNOLOGIKOA, ESKOLA POLITEKNIKOAK
- ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa. Lanbide Heziketako tailerreko praktikak ingeniartzarako konbalidatuta.

### 2 UNIBERTSITATE IKASKETAK

UNIBERTSITATEKO IKASKETA  
GUZTIETARAKO, EGUN DAUDEN  
UNIBERTSITATE GUZTIETAN, ETA GOI  
MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO  
SARBIDEA.

AURREMATRIKULAZIDA: EKAINAREN 1 ETIK 9 RA

MATRIKULAZIDA: UZTAILAREN 1 ETIK 9 RA

### 3 ETA LANBIDE HEZIKETA

- GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK (ALMEN ikastola)
- IRUDI PERTSONALAREN AHOHKULARITZA (ALMEN ikastola)
- ANALISI ETA KONTROL KIMIKOA (ALMEN ikastola)
- INGURUGIRO KIMIKA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- INGURUGIRO OSASUNA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- OSASUNGINTZAKO DOKUMENTAZIOA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ERIZAINZAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK (ARRASATEko ikastola -San V)
- ILEAPAINKETA (ARRASATEko ikastola -San Viator)

	"Ate Ireki" eguna	Bilera informatiboa	Ordua	Tokia	Kontakturako pertsonak	
ALMEN IKASTOLA	99/5/19 Almen 16:30	99/5/19	18:00	Almen	Josebe Murumendaraz	943 71 49 07
ARRASATEKO IKASTOLA	99/5/20 San Viator 16:30	99/5/11	18:00	San F. Xabier	Margari Gorrotxategi	943 79 64 79
		99/5/20	18:00	San Viator	Idoia Urrutia	943 71 24 90



arrasate  
musikal



# Matrikulazio epea zabalik

(Plaza mugatuak)

Maiatzaren 17tik ekainaren 18a arte  
arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara

Nafarroa Etorbidea z/g

ARRASATE

Tel.: 943 79 06 83

943 77 05 40



Musika ikasteko  
ez dago adinik

astea bi hitzetan

■ Ikerlan eta Fagor

Ikerlan eta Fagor Industrial enpresek garbigailuetarako zentrifugatu sistema elektronikoko bat patentatu dute. Sistema berri honen bitartez, arropak lehortzerakoan garbigailuek izaten dituzten dardarak moteldu egiten dira. Dena dela, oraingoan behintzat, sistema hau garbigailu industrialetan bakarrik erabiliko da.

Fagoreta Ikerlan 1996an hasi ziren garbigailuen zentrifugatzeak eragiten dituen dardarak saihesteko sistema baten bila.

■ Ezbeharrak

Astelehenean lan istripua izan zen Kanpazar harrobian. Jabier Errarte 27 urteko langile angiozarra 20 bat metrotik behera erori eta larri zaurituta eraman zuten Gurutzetako ospitalera. Biharamonean hil egin zen.

Asteartean, berriz, San Andreseko Fagorren gertatu zen istripua. Lantegiaren atariaren inguruan R5 Turbo batek eta R18 GTS batek elkar jo zuten. Ondorioz, bi lagun eskualde ospitalera eraman zituzten, zauri arinekin.

■ Posta bidezko botoa

Ekainaren 13an botoa ematera joen ezin duenak, dagoeneko posta bidez bozka dezake.

Honetarako, lehenik eta behin, norbera hautesle eroldan agertzen dela ziurtatu beharra dago, ekainaren 3a baino lehen. Horretarako Postetxera joan eta han ematen duten inprimaki bat bete eta dagokion lekura bidali beharra dago. Egun batzuen buruan, eskatzaileak gutun bat jasoko du, alderdi guztien boto txarteekin. Ostera, bakoitzak bozkatuko

duen alderdiarena aukeratu eta berriz ere Postetxera joan eta handik dagokion herri-rala bidaliko da botoa.

■ CIM enpresei begira

CIMen 25. urteurrenaren ospakizunek aste honetan izan dute segida. Enpresei zuzendutako hitzaldi batekin oraingoan. Bernd Kappel alemaniar hizlaria ekarri zuten Arrasatera. ISD Stuttgart enpresako zuzendari alemaniarrek kulturen artean komunikazio hobea lortzeko nondik norakoak azaldu zituen.

25. urteurren honen ospakizun ekitaldiak bihar bukatuko dira "CIM Eguna" izeneko jaialdiarekin. Goizeko 09:30etan hasi eta gaueko ordu txikiak arte haur, gazte zein pertsona nagusientzako entretenigarri ugari izango dira Musakolako kiroledegian.

■ UGTren bilera

UGT sindikatuaren Deba Garaiko 40 bat ordezkari sindikalek bilera egin zuten ostegunean Arrasateko egoitzan. Carlos Trevilla, Euskadiko UGTko idazkari orokorra izan zen bilerako zuzendaritza lanak betetzen. Hiru gai nagusi jorratu zituen: maiatzaren 21eko lanuztea, 35 orduko lanastea eta lan txandetan erabiliko diren ordezkari kontratuak. Carlos Trevillak adierazi zuen bezala, 21eko lanuztea Confebask eta Eusko Jaurlaritzaren aurka doa.




Kooperatibista gehienak Hego Euskal Herrian jaioak dira, %16 bakarrik da etorkina. Hirutik bi Gipuzkoan bizi dira. %70ek bertan kokaturiko kooperatibetan egiten du lan. Hirutik bi gizonezkoak dira eta langileriaren batezbesteko adina 40 urtekoa da. Lautik hiru ezkonduak dira eta batezbesteko lan antzinasuna 19 urte ingurukoa da".

DANIEL UDALAITZ

Argia

1999.5.16

Erdiko kale. 943 79 19 37



Ferreries. 943 79 87 62

PUB HAIZEA



• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferreries, 11 Tel.: 943 - 77 10 95  
ARRASATE

## Ganadu hilak jasotzeko zerbitzua

Deba Garaiko Mankomunitateak zerbitzu berri bat sortu du, bailarako baserriarrei begira batez ere. Ekainaren 1etik aurrera, Deba Bailarako baserriarrek Euria enpresari dei egin diezaiokete, hilik dituzten ganaduak eramateko. Gehienetan, deitu eta 24 orduko epean etxean izan behar-ko lirateke.

Zerbitzua Mankomunitateak berak ordainduko du. 200 kilo baino gehiago dituzten abere hilak jasoko dira eta Martiodan, Araban, dagoen toki batera eramango dira, putreek jan ditzaten. Abereak txikiagoak direnean, multzoka ere eraman daitezke.

## Ikasleak borrokan

Ikasleek jasaten dituzten bizi baldintzak negargarriak direla salatu zuten asteazkenean MUKo hainbat ikaslek. Ikasi ahal izateko egoera gogorrei aurre egin beharra nabarmendu zuten. Hainbeste urte ikasten ibili ostean begibistan duten etorkizun eskasa ere salatu zuten.

Hau salatzeko, prentsaurrea eta kale bilkura egin zuten Duinak, Presoen Aldeko Taldeak, Euskara Batzordeak, Jaraik, Kultura Batzordeak eta Mugarik Gabeko Ingeniariek.

# Emun, lana euskalduntzen

Emun kooperatibak aurkezpen ekitaldia egin zuen joan den asteazkenean Mondragon hotelean.

1997ko urrian sortu zen Emun, lana euskalduntzeko kooperatiba. Eskoriatzako Irakasle Eskola izan zen bere sortzailea, eta lan eremua eta Deba Bailara euskalduntzea ziren hasiera batean helburu nagusiak.

Gaur egun 28 enpresaren euskalduntze plangintzak dituzte eskuartean. Emunekoek bi arlotan banatzen dute beren eskaintza: hizkuntza normalizazioan eta kalitatezko zerbitzu osagarrietan; aholkularitza juridikoa eta aholkularitza ekonomikoa eta auditoretza, esate baterako.

26 urtetik 39 urtera bitarteko 21 langilek dihardute gaur egun Emun-en lanean.



### EUSKARA ETA ENPRESA

Orain arte lanik handiena enpresak euskalduntzen egin du Emunek. Dagoeneko oso landua du metodologia bat euskararen erabilera areagotzeko enpresetan. Lehenik bideragarritasun azterketa egiten du. Horren arabera, plangintzaren diseinua. Eta

hirugarrenik, planaren gauzatzea eta aurrera atera dadin eragitea.

Bere bezeroen artean enpresa hauek daude: Fagor Taldea, MCC kooperatiba, Alecop, Danobat Taldea, Matz-Erreka, Goizper, Mondragon Unibertsitatea, Eroski eta Eika.

## Urte oparoa, Ikerlanen XXV urtea

“Enpresen euskarri teknologikoa izatea, produktuak etengabegara ditzaten”. Horixe izan zen Ikerlanen egitasmo nagusia orain dela 25 urte hasi zenean. Eta horixe egiten saiatu dira proiektuz proiektu mende laurden honetan Jose Mari Ormaetxea, Jabier Retegi eta Manuel Quevedo. Hirurak izan ziren Ikerlanen sorreran eta enpresaren eskerrona jaso zuten asteazkeneko batzar orokorrean.

Aurretik, baina, iaizko ete-

kinen berri eman zuen Carlos Redondok, Ikerlaneko zuzendari orokorrak. Izan ere Ikerlanek iaz 1.655 milioiko irabaziak izan zituen. Horietako 1.066 enpresek kontrataturiko proiektuetan. Beste 452 milioi Ikerlanek garatutako proiektuetan.

Gaur egun 142 ikertzaile ari dira Ikerlanentzat lanean, era guztietako proiektuak landuz: etxeko tresna elektrikoentzako kontrol elektroniko-

ko sistemak, etxeko igogailuentzako emergentziazko balaztak, salmenta elektronikoetarako makinak, etab.

Nazioartean ere, garrantzi handiko hainbat proiektutan hartu du parte, NASAK eta Europako Espazio Agentziak eskatuta, esate baterako.

Aurrera begira, Ikerlanek kontratupeko proiektuak bultzatzen segituko du, horixe baita bere izatearen arrazoi nagusia.


### Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 943 79 20 57



### MARKO-JARTZEAK ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE



# Alkateak dio udalak legea bete duela portugaldarrekin

Pasa den astean jakin izan genuen urte t'erdi ezezkoa ematen ibili ostean, Zaldispeko bi familia portugaldarrak herriko erroldan sartu dituela udalak. Izan ere, horrelako kasuetan hiru hilabeteko epean udalak ez badio ematen erantzunik erroldan sartzeko eskaerari, eskatzaileak Ustezko Egintzaren Ziurtagiria eskatzeko eskubidea du eta automatikoki sartzen da erroldan.

Pasa den astean SOS Arrazakeriaren ikuspuntua entzun ostean, asteartean Jose Mari Loiti alkateak prentsaurrea eman zuen udalaren jarrera azaltzeko. Bere esanetan, udalak egin duen gauza bakarra legea betetzea eta Arrasateko herritarren eskubideak errespetatzea izan da. Orain arte erroldan sartu ez izana bi arrazoi nagusirekin justifikatu zuen. Batetik, bi familia hauek herrian



Alkatea, bere abokatua eta udaleko idazkaria izan ziren prentsaurrean.

egoera irregularrean daude furgoneta batean bizitzen daudelako eta bestetik, erroldan sartzeko legezkotasuna zalantzan zegoen orain arte. Orain, aldiz, legeak behartu egiten du udala erroldan onartzera.

Alkateak adierazitakoa araberak, "bi familia portugaldar hauek eta SOS Arrazakeriak-ek iazko maiatzetik eska zezaketen Ustezko Egin-

tzaren Ziurtagiri hau, baina ez dute horrela egin. Ondorioz, SOS Arrazakeriak lortu nahi izan duen gauza bakarra alkatearen aurka egitea izan da".

Hori dela eta, ez da onartuko erroldan sartu direneko epea aldatzea, pasa den astean SOS Arrazakeriak eskatu zuen moduan, nahiz eta talde honek alkatearen aurka hasitako auziak aurrera egin.

## Pilar Mondragon iheslaria gose greban

Pilar Mondragon iheslari arrasatearra egiten ari den gose grebaren 26. eguna betetzen da gaur. Pilar duela bost urte pasatxo atxilotu zuten Frantzian eta harrezkero Fleuryko espetxean dago.

Maiatzaren 21ean kalean utziko dute eta iheslari paperik ez duenez, Frantziatik Espainiara bidaltzeko arriskua du, beste hainbeste iheslarirekin gertatu den moduan. Horixe salatze dago gose greban Pilar Mondragon pasa den apirilaren 26tik. Dagoeneko 13

kilo pasatxo galdu dituela adierazi du Amnistiaren Aldeko Batzordeak.

Eta horixe bera salatze-ko asteartean hasi eta beste bi egunez, protesta saioak egin dira Arrasaten Senideak eta AABB elkarteek deituta. Honela, asteartean eta asteazkenean kartelada ibiltariak egin dira eta ostegunean, berriz, kale agerraldia.

Elkarte hauek eskatzen dute iheslariaren eskubideak errespetatzea. Gogora dezagun, honekin lotuta, pasa den maiatzaren 3ko osoko bilkuran Senideak



25 urte darama etxetik kanpo.

elkatearen mozio bat onartu zuela udalbatzak, EAJ, EA, HB eta EB alderdien baiezko botoekin.

### Jaiotzak

- Lorea Berezibar Larrañaga. Maiatzaren 11n.
- Maider Uribetxeberria Arnegi. Maiatzaren 12an.
- Joseba Silvestre Errasti Larrañaga. Maiatzaren 14an.

### Ezkontzak

- Francisco Jimenez Godoy eta Antonia Flores Moto. Maiatzaren 15ean. Elizaz.
- Francisco Javier Mendez Luque eta Maria del Mar Cabreas Rodriguez. Maiatzaren 15ean. Elizaz.

### Hildakoak


- Pilar Cuesta Montijano. 82 urte. Maiatzaren 12an.
- Gregoria Guridi Idigoras. 80 urte. Maiatzaren 15ean.
- Maria Urbana Laspiur. 87 urte. Maiatzaren 15ean.

## PSE-EEren asmoak

Bakea indartzea, Arrasateko auzoetako bizi kalitatea hobetzea, gizarte lanak indartzea diputazioarekin hitzarmenak eginez eta Deba Bailara EAE-ko laugarren hiriburua bihurtzea. Honetxek dira Arrasateko alderdi sozialistak datozen lau urteetarako aurkeztu zituen asmoak pasa den ostiralean. Honetaz gain, ijito portugesen kasuan agertu den hutsunea konpontzeko, Aldi Bateko Egoiliarren Etxea sortzea proposatu zuten. Autobus urbano publikoa ezartzeko konpromisoa ere hartu zuten.

Aurkezpen honetan Rafi Romero izan zen alderdiko lehen lau hautagaien ondoan, Gipuzkoako Batzar Nagusietako mahaiko lehen idazkaria eta zerrendako bigarrena gure eskualdean.

## Alkate ohiak



**Jose Antonio Altuna**  
(1976-1979)

Beste askok bezala, on Jose Maria Arizmendiarrietaren gomendioari jarraiki, 1970an sartu zen Jose Antonio Altuna Arrasateko Udalean zinegotzi lanean. "Ilusioak eta lanak gidatu zuten gure jarduna", dio berak.

Bi obsesio izan zituzten nagusi: ikastola eta ura, Arrasateko ur arazo ikaragarriak zituen eta. Gaur egun baino hiru bat mila bizilagun gehiago zituen Arrasateko, baina aurrekontu eskasa.

Kanpora begira, Bergarako alkatea, Elkoro, buru izan zuen alkate taldean aritu zen lanean, Euskal Herriaren eskubideen alde. Horrek satisfakzio handiak eman zizkion eta baita heriotz mehatxu mordoa. Egoera latzagoa zen, baina udala eramatea errazagoa, alderdikeriarik ez omen zegoelako.

Alderdiak legezatu zirenean, denei deitu eta bere taldea alderdien esku jarri zuen. Udal hauteskundeak egin arte segitzeko erantzun zioten.

Gauza bat gomendatuko lioke hurrengo alkateari, bakearen alde lana egiteko.

## Zu alkate bazina?

Urte mordoa darama irakaskuntzan erabat murgildurik. Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoa dugu orain, baina sasoi batean SFX ikastolako eta AEDko lehendakaria ere izan genuen. Ondo ezagutzen du, bada, esparru hori.

— Alkate bazina, zein izango litzateke hartuko zenukeen lehen erabakia?

— Talde askotarikoa eta lanerako gai dena sortzen ahaleginduko nintzateke. Ahalik eta alderdi gehien bilduko litzukeen Gobernu Batzorde integratzailea. Ardurak banatuko nituzke eta denon artean gure lana gidatuko lukeen plan estrategikoa egin.

— Nolako dohainak izan beharko litzuke alkate batek?

— Entzuten jakin behar du eta elkarlanerako balio.

— Jende prestatua ikusten duzu zerrendetan?


— Prestakuntza profesionala baino, pertsona hauen heldutasuna eta irekitasuna da inportantea. Baita jartzen duten ilusioa eta motibazioa. Hori errazago lortuko da talde baten parte sentitzen badira.

— Irakaskuntzako profesional gutxi ikusten da zerrendetan.

— Irakasleena mundu berezia eta itxia da. Absorbitu egiten gaitu eta zaila egiten zaigu interes orokorreko arduretan sartzea. Kosta egiten zaigu irtetea.

— Zein da irakaskuntzaren egoera Arrasaten?

— Ereduzkoa dela esango nuke.



**Jesus Garmendia**


Eskola euskaldunen eta erdaldunen arteko dikotomia desagertu egin da, zentroek kalitate ona eskaintzen dute, eskaintza ere osoa da, unibertsitariora barne. Irakaskuntza integrala eta integratzailea dela esango nuke. Hori lortzeko, oso inportantea izan da ikastolen eta eskolen lana.

— Zer gomendatuko zenioke hurrengo alkateari?

— Kalera jaisteko, denbora gal dezala jendearekin eta erakundeekin hitz egiten, itxaron gabe jendea bereganatzen joan dadin. Ez dadila bulego gizona izan.

— Zer espero duzu hauteskunde hauetatik?

— Lehenik eta behin, sintonia handiagoa lortzea herriaren eta unibertsitatearen artean, gizarte kontuetan atzera ez egitea, eta udalak ere bultzatzea Lizarra-Garaziko proiektua, bakea lortzeko tresna baliagarria denez gero.



**LOGOPEDIA  
ZENTRUA  
ARRASATE**

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - beheka  
Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE

**TOTEM**

- Zapatak
- Tatuajeak
- Arropak
- Body piercinga

☎ 943 79 49 72 / 943 79 44 88  
Zarugalde, 14 • ARRASATE




## Printzak

❖ EH taldearen alkategaia izateaz gain, **Xabier Zubizarreta** Gipuzkoako diputatu nagusi izateko hautagaia ere bada. **Rafi Romero** ere bigarren doa Deba Bailaran, PSE-EEren zerrendan. Europakoetan, aldiz, bi mondragoetar ditugu: **Jose Antonio Altuna Txatillo** eta **Jesus Larrañaga**, atzean samar eta ez irteko moduan.

❖ ATBk hiru saio mota egingo ditu udal hauteskundeak direla eta: elkarrizketak, mahai ingurua eta bozketa egunekoak. Elkarrizketak azken udal hauteskundeetan boto gutxien lortu zuen alderdiko zerrendaburuarekin hasiko dira eta boto gehien jaso zituenarekin bukatu. Aurten **Jose Mari Loiti** izango da azkena, EAren eta EAJren botoak batu egin direlako.

❖ Demografiaren gorabeherak direla eta, aldatetak izan dira Deba Garaiko zenbait udalerritan. **Leintz-Gatzagak**, adibidez, bi zinegotzi gehiago izango ditu. **Antzuolak**, ostera, bi gutxiago. **Arrasatek** 21 zinegotzi ditu, baina 4.257 bizilagun galduz gero, lau zinegotzi gutxiago izango litzuke, 17 alegia.

## Quisiera ser alcalde...



### Joseba Ugalde

Joseba Ugaldek 48 urte ditu, baina 16rekin egin zituen lehen urratsak politikan, marxismoa eta autodeterminazioa zer ziren izkurtuan ikasten. Gero PCn sartu zen eta, urte batzuk alderdietatik urrunduta ibili eta gero, Ezker Batura bildu zen, independente gisa.

Zinegotzia da eta baita Fagor taldeko Gizarte Kontseiluko aholkularia ere.

Egia esaten duen jendea estimatzen du gehien. Faltsukeria, berriz, ezin jasan. Coprecin eza gutu zuen emaztea, fitxatzeko zain zeudela biak. Harekin pasiatzea gustatzen zaio. Baita lasai bidaia-tzea ere. Erretzaile amorratua da eta jateko orduan, mokofina.

Zalantzak izaten ditu, baina behin erabakiak hartuta, zuzen doan horietakoa da.

Baikorra dela dio, "bestela ez nintzateke politikan sartuta ibiliko nabilen bezala, alderdi txiki batean sartuta".

Isabel Allenderen *La Casa de los Espiritus* liburua gomendatzen digu: "zoragarria da", dio. Zinezale amorratua da eta bereziki Ken Loach-en *Agenda Oculta* filma gogoratzen du, eragin zion irragatik.

R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA  
 Oñatiko b.h. institutua  
 99-00 Aurrematrikula

**BATXILERGOAK: ("A"- "D" EREDUAK)**

- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- TEKNOLOGIKOA

**HEZIKETA ZIKLOAK ("D" EREDUA)**

- Erdi Maila:
  - Mekanizazioa
  - Landa inguruneak
  - Gorputz Kirol
  - Ekintzak Gidatzea
- Goi Mailakoa:
  - Gizarte eta
  - Kultur animazioa

IZEN EMATEKO EPEA:  
 Ekainaren 1etik-9ra  
 TOKIA:  
 Larrañan ikastetxea  
 Tel.: 943 78 21 50  
 Faxa: 943 78 19 08

## Drogazaleak errehabilitatzeko zerbitzua



Drogak utzi nahi badituzu  
 Senide edo lagun bati lagundu nahi badiozu

Deitu guri!

Tel.: 91 855 03 86

los molinos

# Etorkizunerako kirolaria



Beisbolearen irakasten Musakolako kiroldegian.

**Bederatzi urte dira Arrasate Kirol Proiektua (AKP) abian jarri zela. Herriko zazpi ikastetxeetako eta Aramaioko San Martineko neska-mutikoak kirolean hezitzea du helburu AKPk. Heziketa hori euskaraz izatea zaintzen du ondo baino hobeto horretan ari den batzorde antolatzaileak. Batzordea ikastetxe bakoitzeko gurasoen ordezkari batek, udaletako kultura**

**eta hezkuntza teknikariek, AUKEAko ordezkariak eta lau kirol koordinatzailek osatzen dute.**

**Kirol saioak, berriz, teknikari espezialistek, Euskal Kirol Institutuak eta Irakasle Eskolako ikasleek nahiz lizentziatu eta diplomatuak zuzentzen dituzte. Beraz, haurrek ez dute kirola edozein modutan egiten.**

**G**aur larunbata, maiatzak 22, aurtengo kirol proiektuko azken jaia ospatuko dute proiektuan kirola egiten diharduten 747 neska-mutikoek. Sari banaketa erraldoia egingo da Iturripen. Horrez gain, bizikleta irteera Aramaiora (10:00etan, Iturripetik abiatuta) eta sari banaketa eta zozketa izango dute.

San Andres, Erguin eta Musakolako herri eskoletako haurrak, San Viator eta San Frantzisko Xabier ikastoletakoak, La Merced ikastetxe-

koak, Institutukoak eta Aramaioko herri eskolakoak daude kirol proiektuan. Gipuzkoako kirol federakundeeekin batera, teknikariek erabakitzen dute adin talde edo maila bakoitzean zein jarduera mota egin. Horrekin batera, txapelketak zein irizpideren arabera antolatu eta jokoaren arauak eta partaideen adinetako ezaugarri eta interesak nola egokitu ere erabakitzen dute. Izan ere, kirolean hezi nahi ditu haurrak eskola kirolak. Ez elkarren artean lehia egiteko asmoarekin, baizik eta heziketa osatzeko eta eus-

karaz bizi daitezen.

Arrasaten berezitasun nabarmen bat du, hala ere. Lehen aipatu bezala, AKPk herriko ikastetxe guztiak koordinatzen ditu. Modu honetan, haurrek elkar ezagutzeko aukera dute. 1990-91 ikasturtean antolatu zen lehenengo aldiz eta harrezkeroztik Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako neska-mutikoek asteburuero eskola orduetatik kanpoko kirola egiten dute. AKPk koordinatzaileetako batek esan bezala, "AKPk haurren heziketa osoa lortu nahi du

ekintza fisiko eta kirolaren bidez, aurrerantzean bizi kalitate hobea izan dezan". Asmo horrekin kirol programa berezi bana antolatzen dute adin bakoitzarentzat.

## EGITARAU EGOKITUA

Herrian egiten diren kirol gehienak kirol proiektuan sartuta daude: errugbia, saskibaloia, eskubaloia, atletismoa, txirrindularitza, pilota, areto futbola, xakea, mendia, igeriketa... Baina horietaz gain, beisbola eta floorball delakoa ere (hockey-ren antzekoa) egiten dira. Adin bakoitzeko haurrak bere neurrian egiten du kirola. Lehen Hezkuntzako (LH) lehen eta bigarren mailako ikasleek "psikomotrizitate" lantzen dute. Jolasak erabiltzen dituzte kirolean hezitzeke eta hilean behin, larunbatean, hainbat ekintza egiten dituzte.

LHko hirugarren eta lauugarren mailako neska-mutikoek, aurrekirola egiten dute, hau da, kirolera zuzendutako jolasak egiten dituzte. Koordinatzaileek azaldu digutenez, "ez da kirol zehatzera zuzendutako entrenamendua, baizik eta jolasa kirolera ego-

**"10:00etan hasiko da AKPre azken jaia Iturripen. 747 haur ari dira proiektuan"**

# txikitatik hezitzen dira

kitua". Lau astetik behin aldatzen dute kirola.

Multikirola deitzen dute-na, LHko bosgarren eta sei-garren mailako ikasleentzat da eta sei astez behin kirol bat egiten dute.

DBHko ikasleek lehen espezializazioa deritzana egiten dute. Infantil mailako neska-mutikoak dira eta beraiek hautatutako kirola egiten dute. Herrian jarraipena izan dezaketan kirolak izaten dira horiek, horixe baita AKPren helburuetako bat: haurrek kirola egiten segitzea, baina hainbat kirol ezagutu ondoren.

## PARTAIDETZA HANDIA

Eskolaz kanpoko kirol ekin-tzen partaidetza igo nahi izan da. Eta horretan asmatu egin dute, bai, AKPko lagunek. 90-91 ikasturteak hona, igo egin da eskolaz kanpoko kirola egiten duten haurren kopurua. Orduan haur guztien %33k egiten zuen kirola AKPrekin. Izan ere, kirola modu hone-tan egiten dutenek borondatez egiten dute eta. Urteko ordain sariaren (4.750 pta) truke udalak jarritako instalazioak, partidetak joateko garraioa, materiala eta begirale espezializatuak izaten dituzte. 1998-99ko ikasturtean LH eta DBHko ikasleen %45ek egiten du kirola proiektuaren barruan. Bere lehen-dakariak, Alfonso Donnayk adierazi bezala "ez da txantxetako. Guztira 747 neska-mutiko dira eta hori guztia koordinatu beharra dago".

Aukeatik, udalaren Hez-kuntza batzordetik eta dipu-taziotik jasotzen ditu dirula-guntzak AKPk. Aramaioko



Gustura hartzen dituzte sariak kirolari gazteek.

eskolatik bai eta Arabako Alduniditik ere proportzio berdinean jasotzen dute, Aramaioko eskolako haurrak ere AKPn koordinatzen dira eta.

## ERRONKA BERRIAK

Xakea bultzatzea da kirol ekin-tzei dagokionez AKPk duen helburuetako bat. Izan ere, horixe baita haur gutxien dituen kirola. Baina Alfonsok berak azpimarratu duen bezala, "hori San Andres Xake Taldekoekin egingo dugu eta ez da zaila izango. Garrantzi-tsuagoa litzateke diru sarre-rak lotzea. Zenbat diru dau-gagun jakinez gero, hobeto

kudeatu ahal izango dugu AKP. Horren harira, datozen hiru urteetarako hitzarmena onar-tu du dagoeneko udalak, ekai-na aldera zehaztuko duguna. Baina ezin dugu ahaztu txi-rindularitza. Aurten kirol berria izanik, bultzada bere-zia beharko du datorren ikas-turtean".

## HARROBIA

AKPn ari diren taldeen sail-kapenak egiterakoan, hauek hartzen dira kontuan: jokala-rien falta kopurua, etortzea, puntuak (golak, saskiak...), errespeto faltak (lagunekiko, aurkariekiko, epaileekiko) eta

## Azken festaren egitaraua

• 10:00etan Aramai-  
ra bizikleta irteera,  
Iturripetik.

• 12:00etatik aurrera  
sari banaketa, AKPko  
sailkapenaren arabera

• Gipuzkoako txapel-  
ketan aritu diren taldeei  
txalo zaparrada

• Zozketa mundiala:  
bizikleta, txandalak,  
Errealak eta Tau Basko-  
niak sinatutako  
baloiak...

euskararen erabilera.

Baina herritik kanpo ere aritzen dira neska-mutikoak. Aurten alebin mailako lau tal-dek eta infantil mailako bes-te batek lortu dute sailkatzea Gipuzkoako txapelketan. Eskubaloian San Frantziko Xabier Ikastolako nesken B taldea eta mutilen E taldea; are-to futboleko SFXko mutilen D taldea, saskibaloian San Via-torko mutilen A taldea eta infantil mailan, San Viatorre-ko mutilen saskibalo taldea.

Hauetatik SFXko E, B eta D taldeek txapelketan segitzen dute.

Badirudi etorkizuna dute-la, bai, kirolari gaztetxo hauek. AKPri esker, herrian dauden kirol taldeetan sartzeko pres-takuntza egokia jasotzen dute eta, neska-mutikoek. ■

Marijo Deogracias



## BISITARI OSPETSUAK


Juan Jose Ibarretxe lehendakaria, Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako bozeramailea, Roman Sodupe aldun nagusia, Antonio Cancelo MCCko lehendakaria eta Jose Mari Loiti

Arrasateko alkatea Fagor Elekrates-nak kooperatiban izan ziren ostegunean. Lehendakari berriak Arrasatera egin duen lehenengo bisita izan zen. Ostiralean, berriz, Luis Maria

Bandres Gizarte Zerbitzuetako diputatua eta Maria Jesus Aranburu, Gizartekintzako zuzendaria izan ziren.

## EGINDAKOAREKIN HARRO

San Viator Txiki Ikastolako Oskar Barbero, Ainara Carmona eta Aitor Akizu dira Mankomunitateak eta udaleko Ingurugiro Eskolak antolatutako hormirudi lehiaketako irabazleak "Zaborraren problematika aztertzen" izeneko kanpainaren barnean. Zorionak!



Juan Ignacio Biain Musakolako alkateak aurtengo Urrezko Astokiloak izendatu zituen auzoko jaietan. Aurtengo irabazleak Arrasateko Dultzainajoleak izan dira. 20 urte daramate kaleak girotzen eta sei dira: Enrike eta Esteban Dolara anaiak, Edu Abarrategi, Joxerra Perez, Iban Zubizarreta eta Jon Txintxurreta. Zorionak astokiloek!

## AL-ANDALUSEN ERREGINA

Iaz ohorezko dama eta aurtengo Andaluziar Asteko erregina izan da Lorea Galiot. Aukeraketarako desfile bat egin zen larunbatean. Andaluziako jantzi bikainak ikusteko aukera izan zen. Zorionak bada, erreginari!






## MOTORZALE SUTSUAK

Ostiral goizean motorra piztu, Madrilerako bidea hartu eta Jerezeko Sari Nagusira joan ziren Jabi Gonzalez eta Txema Kortabarria arrasatearrak. Bero galanta egin arren, primeran ibili ei ziren. Datorren urtean arrasatear gehiago animatzea espero dute.

## SAN PANKRAZIOK IKUSI BALITU...

San Pankrazio pozik ibiliko da duen jarraitzaile zintzo mordoia ikusita. Begira zenbat elkartu ziren Eskola Politeknikoan zaindariaren eguna ospatzeko. Bezperan hasi eta egunean bertan makinatxo bat ekitaldi izan zituzten. Noski, tartean indarrak berreskuratu zituzten...



## BIKARIOTZATIK BUELTAN

Pedro eta Olatz martxoaren 20an ezkondu ziren. Dorleta-ko Santutegian egin zuten ezkontza, giro ederrean. Zorionak bikote, eta urte askorako!



# Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 50



## Elizondo

kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99



## Non dago Wally?

kusi diuzue Zaldibarko txapelketako maskota berria? Guk bai, eta begira zein polita den gainera.

## Laburrak

### ■ JARDUNALDI LASAIA

Hirugarren aldiko lehenengo jardunaldia jokatu zen joan den asteburuan, baina lasaia izan zela baino ezin da azpimarratu. Aurrekoekin alderatuz gero, ezin esan talderik kale egin zuenik, ez eta jokalarien eta epaileen artean tira-birarik izan zenik. Beraz, ondo hasi dugu hirugarren aldia.

Aste honetako jardunaldiari buruz, ordea, ezin esan gauza bera. Izan ere, aste hone-

tan jokatu behar duten talde batzuentzat behintzat, hil edo bizikoa izango da.

Kasu horretan daude A taldean Sokoakoak eta Lontxo Taberna. Izan ere, bi talde hauek galdu egin zuten joan den asteko partida eta beste porrot batek final laurdenetarako pasatzeko dituzten aukerak asko gutxituko lituzke.

B taldean egoera berean daude Komando Alpargat eta Pepelus taldeak. Aste hone-

tan elkarren aurka jokatzen dutela eta, partida interesgarria eta erabakigarria izango da. D taldean, KKJauri eta Driblingek dituzte zailatasunak hurrengo aldiari begira. Bi hauek galera bat dute euren aurka eta aste honetan Naranja Mecanica eta AC Surkosen aurka, hurrenez hurren. Biek irabazi egin zuten joan den asteburuan. E taldean AT Celaya dago arriskuan eta Branka Tabernaren aurka aritu behar-

ko da aste honetan.

### ■ IRAGARPENAK

Iragarpen guztien arabera, A taldeko Txantxiku Kirolakek irabazi egin zuen eta gauza bera egin zuten B taldeko Aldibik eta Orlando Piratasek. D taldean AC Surkos eta Naranja Mecanicaren aldeko apostua egin genuen. Azkenik, E taldean EPEHK inongo arazorik gabe gainditu zuen AT Celaya taldea, 8 eta 3.



## ARTOUR TRAVEL


bidaiak

### San Juanetan Arrasaten?

- Salou, 3★ ..... 23.870 pta
- Benidorm, 2★ ..... 25.445 pta
- Mallorca, 3★ ..... 48.100 pta
- Tenerife, 4★ ..... 62.000 pta
- Dominikar Errepublika  
dena barne ..... 121.950 pta
- Londres,  
hegazkina bakarrik ..... 21.000 pta

Maixu Arano, 2  
Portaloian  
Tel.: 943 79 32 22  
20500 Arrasate

**Eskaintza ezin hobekak  
Artour Travel-en!!!**



Salmenta eta  
zerbitzua

## IBABE GARAJEA

### MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

Industriaidea 1-0-4  
Tfnua: 791844  
Faxa: 792944



# Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.	
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.	
Txantxiku Kirolak	1	1	0	0	8	1	2	
You Know	1	1	0	0	3	2	2	
Lontxo Taberna	1	0	0	1	2	3	0	
Sokoakoak	1	0	0	1	1	8	0	

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.	
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.	
Aldibi	1	1	0	0	11	5	2	
Orlando Piratas	1	1	0	0	7	3	2	
Pepelus	1	0	0	1	3	7	0	
Komando Alpargat	1	0	0	1	5	11	0	

D taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.	
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.	
Naranja Mecanica	1	1	0	0	9	1	2	
AC Surkos	1	1	0	0	7	3	2	
KKJauri	1	0	0	1	3	7	0	
Dribling	1	0	0	1	1	9	0	

E taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.	
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.	
EPEH	1	1	0	0	8	3	2	
Branka Taberna	1	0	1	0	1	1	1	
Potroak	1	0	1	0	1	1	1	
AT Celaya	1	0	0	1	3	8	0	



## Emaitzak

**A taldea**  
Txantxiku Kirolak 8 - Sokoakoak 1  
You Know 3 - Lontxo Taberna 2

**B taldea**  
Aldibi 11 - Komando Alpargat 5  
Pepelus 3 - Orlando Piratas 7

**D taldea**  
AC Surkos 7 - KKJauri 3  
Naranja Mecanica 9 - Dribling 1

**E taldea**  
EPEH 8 - AT Celaya 3  
Branka Taberna 1 - Potroak 1

## IV Nesken Futbito Txapelketa



### 4. jardunaldia San Viatorren

Izen Bakuak 5 - Porrusalda F. 5  
Nuze 0 - Gora Gu 1

### Ferixalekuan

Txanpi 2, 10 - leup!! 0  
Txanpi 1, 13 - Skarlets 1

### Oraindik jokatzeko:

Pilpil Efectua - @z.kom

### Maiatzak 22, larunbata

**San Viator Txikin:**  
16:00 leup!! - Pilpil Efectua  
17:00 Skarlets - Txanpi 2  
18:00 Izen Bakuak - @z.kom

### Ferixalekuan:

16:00 Porrusalda Forever - Nuze  
17:00 Txanpi 1 - Gora Gu

Izen Bakuak taldeak jaun eta jabe segitzen du nesken futbito txapelketa. Baina hurrengo taldeekiko tarteak ez da oso handia. Dena dela, Izen Bakuak sailkapeneko azken tokian dagoen @z.kom taldearen aurka jokatu behar du. Beraz, lehen tokian segituko duela dirudi.

### Sailkapena

1.- Izen Bakuak	7
2.- Txanpi 1	6
3.- Txanpi 2	6
4.- Porrusalda Forever	5
5.- Gora Gu	4
6.- leup!!	2
7.- Pilpil Efectua	2
8.- Skarlets	1
9.- Nuze	1
10.- @z.kom	0

**ARRASATE KIROLAK**  
Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

## Hurrengo partidak

3 aldia  
2. jardunaldia

Maiatzak 22, larunbata

### Zaldibar

09:50 AC Surkos - Dribling  
11:00 You Know - Sokoakoak  
12:00 EPEH - Potroak  
13:00 Naranja Mecanica - KKJauri  
14:00 Branka Taberna - AT Celaya  
15:00 Pepelus - Komando Alpargat  
16:00 Txantxi Kirolak - Lontxo Taberna  
17:00 Aldibi - Orlando Piratas

Arrasate Motorzale Elkarteko lehendakaria

## FERNANDO SANCHEZ

**“Motorra ez da abiadura bakarrik. Tokiak-eta ezagutzeko balio du”**

— Zer moduz joan zen motorzaleen bilkura?

— Eguraldia ez zen onena izan, baina ondo. Hogeita hamar bat lagun aritu ginen lanean eta 300 motorzalek eman zuen izena.

— Lan handia da horrelako bat antolatzea?

— Babesleak eta ikuskizunak bilatzea, iragarkiak denboraz egitea, baimenak eskatzea... Dena dela, urteak dira bilkurak egiten ditugula... Eguraldi ona egiten badu, dena ondo ateratzen da.

— Zer diote bilkurara datozenek?

— Azkenengo egunean zer iruditu zaien galdetzen diegu, ahal den neurrian hurrengo urtean hobetzeko. Azken batean hori bilatzen dugu, geroz eta hobeto egitea.

— Zein helbururekin egiten dira honelako bilkurak?

— Elkar ezagutzeko eta, bide batez, turismo egiteko. Horretan ez dabilenak ez du ulertzen bilkuren arazoia.

— Hirurehun motorzalek eman zuten izena, baina oso motor ezberdinak zeuden, ezta?

— Bai, pasiorako motorrak eta bizkor ibiltzekoak. Mota guztietatakoak. Motorra ez da lastertasuna bakarrik. Tokiak eta jendea ezagutzeko balio du.

— Zein izango da hurrengo ekitaldia?

— Ekainaren 13an Motor Txikien Euskal Herriko txapelketa eta irailaren 26an motokros txapelketa. Azaroaren 14an, agian, trialekoa.

— Zer behar dute Arrasateko motorzaleek?

— Motokrosa egiteko zirkuituak behar dira herrian. Jende askok egiten du motokrosa eta ez dago horretarako leku aproposik.



## GIMNASIA ERRIMIKOA Idurrek urrea, Mariak zilarra



Eskolararteko Gimnasia erritmikoko Gipuzkoako txapelketan, Arrasateko 13 neska aritu ziren, Gipuzkoa osotik etorritako 200 gimnastekin batera.

Infantil mailan arrasatearrak garaipena eskuratu zuten banakako txapelketan. Idurre Gartzia izan zen saritua. Hirugarren tokian ere arrasatear bat sailkatu zen: Maria Etxeberria. Biak ere sokarekin eta uztaiarekin aritu ziren.

## ATLETISMOA Perezek errekorra



Jonathan Perezek, Arrasate Kirolak Atletiko Taldeko kideak, herriko errekorra gainditu zuen Anoetako parte hartze libreko probetan. Pertika jauzian 4,20m egitea lortu zuen. Bittor Alonsoren 4,15eko jauzia gainditu zuen.

## FUTBOLA Akabo aukerak



Berea egin du Mondrak, prefereente mailan. Igandean berriz ere galdu zuten Letonaren jokalariek, etxean jokatutako norgehiagokan. Intxaurrendoren aurka bi gol sartzea lortu zuten arren, bisitariek hiru sartu zizkieten. Hurrengo denboraldian territorialeko lehen mailan aritu beharko dute herriko futbolari nagusiek.

Igande honetan Zestoara abiatuko dira. Zestoa zazpi-garrena da sailkapenean eta Arrasateko taldeak baino 23

puntu gehiago ditu. Nahiz eta ezer galtzeko ez izan, ez dute etxean galdu nahi izango.

## ESKUBALOIA Derbian galdu



Derbia jokatu zen gazte mailako eskubaloi taldeen artean joan den larunbatean. Aurrez aurre, Arrasate eta Almen-Jakion aritu ziren. Atxabaldarrak izan ziren nagusi hasiera hasieratik eta sailkapeneko bigarren tokian daude, horri esker. Almenekoek kontraerasora jokatu zuten Gorostizaren taldeak berriz ez zuen defentsan lan onik egin. Gauzak horrela, 19 eta 25 amaitu zen partida Almen-Jakionen alde. Arrasatearrak puntu bakarra dute, Gipuzkoako kopan eta aste honetan beste derbi bat dute jokoan. Oraingoan Aloña Mendiren aurka izango da.

## SASKIBALOIA Biek galdu



Junior eta haur mailako herriko bi taldeek galdu egin zuten joan den asteburuan. Haur mailakoek Loiolaren aurka 62-118 galdu zuten. Juniorrek, berriz, Ordiziako taldearen aurka 28 puntuz galdu zuten 41-69. Aste honetan bi taldeak kanpoan arituko dira berriz. Haur mailakoak Aldapetaren aurka eta juniorrak Etxadi-Argisanen aurka.

## ERRUGBIA Haurrek etxean



Haur eta infantil mailako errugbi taldeek ligako azken partidak dituzte, Hernanin, Ordizia eta Hernaniren aurka.

# Namibiarrak nagusi Arraste-Oñati herri krosean

Arraste-Oñati herri krosaren XVII aldia afrikarrak izan ziren jaun eta jabe. Luketz Sorzboi eta Elisabeth Mongudai namibiarrak aise nagusitu ziren eta biak lehenengoak izatea lortu zuten Oñatiko plazako helmugan.

Biek ere datorren asteburuan New Yorkeko maratoi ospetsuan hartuko dute parte. Euskal Herrira entrenatzerá etorri ziren.

200 korrikalarik baino gehiagok hartu zuten parte lasterketan, eta lan izugarria izan zuten Luketzek ezarrirako erritmo gogorari eusteko. Izan ere, Luketzek 37'31" tan egin zuen 10,3 km.ko ibilbidea. Elisabeth Mongudaik, berriz, 37'21" .

Bigarren lekuan Zesar Perez donostiarra heldu zen eta brontzea oñatiar batentzat izan zen, Ricardo Fernandezentzat.



Luketz Sorzboi namibiarra izan zen nagusi Arraste-Oñati krosean.

## ARRASATEARRAK ONDO

Jabier Mentxakak seigarren tokian helmugaratzea lortu zuen. 36 minutu eta erdi behar izan zituen helmugaratzeko. Emakume beteranoenen artean Mari Jose Gil arrasatearra izan zen lehena.



Jabier Mentxaka

Mari Jose Gil

Elisabeth Mongudai

## VIII Xake Txapelketa Musakolan



San Isidroetako VIII xake txapelketa Errenteriako Beraun Bera taldeak irabazi zuen. Larunbatean jokatu zen eta 48 xakelari aritu ziren, 12 taldetan. 364 partida, 4 orduan. A ze marka! Arrasate A taldea, laugarren

izan zen eta B taldea, bederatzigarren. Txapelketan Aretxabaletako Arlutz aritu zen, Gipuzkoako taldekako irabazlea. Beraun Bera taldea Euskal Herriko Oho-rezko liga jokatu du denboraldian.

## Haur txirrindulari festa

Igandean ospatuko da Aretxabaletan Haur Txirrindulari Festa. Goizeko 10:00etan elkartuko dira Partenoi parean parte hartzaileak eta 10:15ean zikloturisten irteera izango da. 11:15ean ogitartekoak eta freskagarriak eta eguerdiko 12:00etan ginkana probei ekingo diete.

### SAN ISIDRO SARIA

Igandean jokatu zen XV San Isidro txirrindulari saria. Garai-pena Ander Odriozolak lortu zuen (Ciclos Beristain). Lehenengo arrasatearra Aitor Frutos izan zen, nahiz eta garai-kurra Aitor Pavonek hartu zuen bere taldekidearen izenean.

## Arrasate vs. Real Sociedad

Larunbatean ohorezko infantilek erronka berezia izango dute Atxabalpen. Real Sociedad taldearen aurka arituko dira goizeko 11:30etik aurrera. Zelai nagusian jokatu dute, bedarretan.

Partidak, gainera, eragingarri berezi bat izango du. Izan ere, Arrasateko lau jokalaririk ari dira infantil mailako Real Sociedad taldean. Julen Zaitegi, Mikel Gonzalez, Asier Sanchez eta Josu Etxebarria, hain zuzen ere.

Joan den asteburuan galdu egin zuten 2 eta 1, Real Union taldearen aurka. Beraz, aukera polita izango da larunbateko garaipena eskuratzeko.

# IKASTAROAK ATZERRIAN UDA HONETAN

IRLANDA  
INGALATERRA  
EE. BB.  
FRANTZIA  
KANADA  
ALEMANIA

ingelese  
frantsesa  
alemana

**CIM** EK, AURTENGO UDAN, AUKERA ZABALA ESKAINTZEN  
DIZU HIZKUNTZAK ERA ATSEGINEAN IKASTEKO.

*haur, gazte eta helduentzako ikastaroak.*

EKINTZA **turistiko eta ludikoekin**

ETA CIM EK BETI ESKAINTZEN DIZUN **bermearekin**



**bai&by**

Arrasate-Mondragón  
Avda. Alava, 4  
Tel.: 943 712055  
Orati  
Olakua, 14  
Tel.: 943 716000  
Vitoria-Gasteiz  
Florida, 8A  
Tel.: 945 150155

## 1999/2000 ikasturtea

### GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK (bi ikasturte)

- ▲ Proiektu Mekanikoen Garapena
- ▲ Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- ▲ Industria Ekipoen Mantenimendua

### ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (bi ikasturte)

- ▲ Mekanizazioa



Makina Erremintaren Institutua  
San Roke auzoa, 1  
20870 - Elgoibar  
Tel. 943 74 41 32  
E-posta: amaia@fmh.es

*Bilera informatiboa: maiatzak 28. arratsaldeko 17:00etan*

**Aurreinskripzio epea: ekainaren 1etik 9ra, biak barne.**



# Meca: auto saltzailerik aspaldikoena


Berrogeita hiru urte badira Justino Bujanda Arrasatera etorri zela eta, beste lagun batekin batera, automobilen txapa konpontzeko lantegia jarri zuela Bizkaia etorbidean, Odoloste etxean.

Urtebete eta erdi geroago, lagunak kale egin ostean, Pablo Lasarekin elkartu eta Meca sortu zuen Birekurtzen, Musakolan. Orduantxe hasi zen Renault etxearekin gaurdaino iraun duen harremana.

Artean ez zebilen beribil askorik gure errepedeetan, baina orduan hasi ziren ugaltzen. Hasi berritan, Fagorrek 178 furgoneta txiki eskatu zien. Hura estutasuna, margotu bitartean tokirik ez zutelako auto guztiak gordetzeko! Egun batzuetan hantxe egon ziren, Musakola osoan zehar barreiaturik. Zorionez, ez zen lapurretarik gertatu. Musakolan hemezortzi urte egin zuten, 1976an Mugarritera joan ziren arte.

## TOLOSARAINO

Eduardo Bujandak azaltzen digu automobilen negozioa izugarri aldatu dela: "lehen denetik egin behar izaten genuen. Petrolio tanga eta beste pieza asko konpondu egiten ziren; gaur, aldatu egiten ditugu, besterik barik". Jendea eros ahalmen handiagoa du, eta garajeek aukera zabalagoak eskaintzen dituzte. "Jendea gero eta jantziago dabil kontsumo kulturaren eta zerbitzu bereziagoak eskatzen dizkigu. Eta guk, jakina, eman



Justino Bujanda

egin behar".

Meca aurrera doa, eten-gabe. Tolosaraino iritsi da. Hango Catosa lantegia erosi zuen. Orain, beraz, Arrasaten eta Tolosan egiten du lan. Guztira 40 langile ditu, 26 Mondragoen eta 14 Tolosan.

Hiru sail berezi lantzen ditu Meca: salmentak, saldu osteko zerbitzuak (konponketak eta) eta biltegia.

## BIGARREN ESKUKOAK

92tik 97ra urte latzak bizi izan zituzten. Azken biak, ostera, onak izan dira. Meca liderra da Arrasaten, salmentei dagokienez. Renault Meganek badu zerikusirik horrekin. Hala ere, beribil asko izan ditu Meca bikain saldu direnak: 4-4, 4L, R5, R8, R12, R18... eta inoiz Renaultek gehien saldu duen automobila: R19.

Merkatu berriak eta sal-

tzeko formula berriak lantzen ari dira Mecan. Alde batetik auto erabiliak edo bigarren eskukoak. "Ingaterran, saltzen den auto berri bakoitzeko hiru dabilta bigarren eskukoak", dio Eduardok. Hemen, berriz, auto erabilien merkatuak ez du oraindik arrakasta handirik izan. "Zaila da erosleari konfiantza ematea. Hala ere, etorkizun handia ikusten diogu atal honi, gero eta auto gehiago agertzen ari direlako bi, hiru edo lau urtekoak eta egoera onean daudenak. Guk sei hilabeteko eta urtebeteko bermea ematen dugu bigarren eskuko beribil guztietan".

*Multi estrenoa* delakoa da Meca lantzen ari den formula berria: "auto bat erosten duzu, bi, hiru edo lau urterako. Aldi hori amaitutakoan, hiru aukera dituzu: autoa utzi, azken kuota ordaindu barik; azken kuota ordaindu eta autoa zeureganatu; edo autoa aldatu, marka bereko beste bat hartuz. Horrela, bizpahiru urtez edo, auto berria daukazu". Oraingo asko ez badira ere, gero eta jende gehiago ari da era honetako formulak erabiltzen.

"Gure arteko lehia izugarria da", dio Justino Bujandak, "multinazionalek, gainera, estutu egiten gaituzte. Orain gehiago saldu beharra dugu, lehengo irabaziak lortzeko. Edozeinek jar lezake hau bezalako negozio bat, baina eustea ez da bat ere erraza". Berrogeita hiru urtez iraun duenak badaki.

## Meca Lantegiak

• Urteak.....	43
• Lantegiak.....	2
• Langileak.....	40
• Lehendakaria.....	Justino Bujanda
• Kudeatzailea.....	Yolanda Bujanda
• Salmentak.....	Eduardo Bujanda
• Saldu osteko zerbitzua.....	Norberto Bujanda
• Administrazioa.....	Angel Simon

  
**Ψ**  
**NARE**  
 psikologoak  
 Haurrak - helduak - bikoteak  
 RPS: 292/98  
 Isasi, 17 - 1 • EIBAR •  
 Tel.: 943 20 05 95

**IRATI TABERNA**  
 Ferrerías kalea • Tel.: 943 79 56 11  
 ARRASATE

**BASABE JATETXEA**  
 Menu eta afariak  
 Boda eta banketeak  
 Tel.: 943 79 91 84  
 ARETXABAETA

## BRUTAL MELODY (VILLA DE BILBAO SARIKETAKO IRABAZLE

# “Juan badoa, baina

1994ko urrian sortu zen Arrasateko Brutal Melody taldea, eta lehen kontzertuak 1995ean egin zituen. Aner kantariak, Pako eta Juanra gitarrajoleak, Txemi baxuak eta Juan bateriak osatzen dute taldea. Villa de Bilbao saria irabazi dute oraintsu, estatuko 900 talderekin lehiatu ostean. 300.000 pta.ko sariaz gain, disko baten grabaketa ere ordainduta izango dute.

— Villa de Bilbao irabazteak zer esan nahi du zuentzat?

— Gorakada handia. Kalitate handiko 900 talderen artean finalera iristea, hedabideek egiten dizuten jarraipena, saria... asko esan nahi du guretzat. Sinestezina da.

— Bilborock aretoan giro hotza egoten dela diote.

— Bai, hala da. Lehenengo lerroan epaimahaikoak jartzen dira, eta musika kritikariak muturren aurrean dituzu, jotzen duzun bitartean. Kontzertuaz disfrutatzen baina gehiago, taldeek jotzen dutena aztertzen joaten da jendea. Bestalde, lehiaketa ostegunetan egin da, arratsaldeko zortzietan, eta orduak eta egunak

ere baldintzatzen du. Dena den, guk nahiko gustura jo genuen, eta ez ginen urduri jarri. Arrasatek ere jende asko joan zen animoak ematera, eta hori asko eskertzen da.

— Aurten talde askok hartu du parte txapelketan?

— Aurten izan da orain artean izan den talde kopururik handiena: 900. Finalera hamar bat talde iritsi gara, eta horiek bakarrik jo dugu zuzenean. Guk zortzi abesti jo genituen, Brutal Melodyekin duen ibilbide guztitik hartutakoak.

— Disketxeetatik eskaintza asko jaso duzue?

— Bai. Astelehen gauean jakinarazi ziguten guk irabazi genuela, eta astearte goizean dagoeneko deitu ziguten disketxe batetik. Halere, momentuz itxaron nahi dugu, abesti berriak sortu eta gauzak poliki hartu. Disketxeak ez du ezer ordaindu beharrik izango. Horregatik, inbertsio bat izango da disketxearentzat. Guri presioa egitea dagokigu. Badaude bizpahiru disketxe gustuko ditugunak, kondizio onak ematen dituztenak eta taldeez arduratzen direnak, diru iturriak lortzeko ateratzen

duten materialaz soilik pentsatu beharrean.

— Eta diskoa noiz grabatuko duzuen pentsatu duzue?

— Ez dakigu. Diskoan sartu nahi dugunak eragina izango du horretan, eta lehenik jotzen segituko dugu, eskaintza berriei itxaronez.

— Dena den, aurrez badiuzue bi grabaketa.

— Lehena maketa da, “Mundu faltsua”. 1.500 kopia saldu ziren. “Hogei minututako biolen-

tzia” minidiskoa da bestea. Hori orain dela gutxi hasi ginen banatzen.

— Disko berrian abesti berriak sartuko dituzue?

— Hori oraindik ikusteko dago. Villa de Bilbao zein aurrekontu emango digun ere jakin behar dugu lehenik. Bestalde, ongi legoke diskoak izan dezakeen zabalkuntza ikusita lehenagoko kantak sartzea ere, maketako abestiak adibidez, ez baitziren guk nahi izandako leku guztietara iritsi.

— Ikuskizuna ere eskaintzen duzue kontzertuetan...

“Disketxeetatik jaso ditugu eskaintza batzuk. Orain guri presioa egitea dagokigu”



# taldea ondo utzita”

— Zirrargarria da Brutal Melodyko taldekideak zuzenean ikustea. Hortxe dugu indarririk handiena. Kontzertua eskaintzean, gainera, gure entzuleei etxean entzun dezaketen musika baino zerbait gehiago eskaini nahi izaten diegu. Entzuleak gure ikuskitzunean barneratzen saiatzen gara.

— **Aner da euskaraz dakien bakarra. Nola moldatzen zarete abestiak idazteko?**

— Denok hitz egiten dugu

gaiet buruz. Gaurkotasuna duten gaiak eta ez dutenak lantzen ditugu, eta gure iritzia eman ostean, Aner izaten da ideia papereratzeko duena.

— **Nolakoak dira zuen entzuleak?**

— Gehienbat gazteak dira. Baina izaera ezberdineko jendea da, talde barnean gure izaerak ezberdinak diren moduan.

— **Zer da zuentzat Ekon taldea?**

— Entseguetako toki bera erabiltzeaz gain, izugarri lagun

onak dira. Laguntaldean ere batera gabiltza, eta askok nahastu egiten dituzte talde bietako kideak.

— **Orain Juanek taldea utziko du. Nola ikusten duzue etorkizuna?**

— Ongi. Juan ere harro dago taldea oso egoera onean utzi duelako: Villa de Bilbao saria poltsikoan dugu eta etorkizuna emankor ikusten dugu. Baterijole berria dugu. Lehen Ekonek kontzertuak noiz zituen begira egon behar izaten genuen. Baterijole berria, gainera, ona da.

— **Galdera motz batzuk: Kosovo.**

— Gaurkotasuneko gaia. Elkartasun eta bazterketa handia.

— **Presoak.**

— Gertuago ikustea gustatuko litzaiguke. Etxean balitz, hobeto.

— **Drogak.**

— Hor daude, alkohola eta tabakoa bezala.


— **Gaztetxea.**

— Taldeek orain arte izan duten laguntzarik handiena.



Goi mailako Lanbide Heziketako B. Institutua  
**Miguel ALTUNA**

Ibargarai 1 • Bergara • Tel.: 943 76 24 91/943 76 38 40



**1999/2000**  
ikasturterako  
**Hezkuntza**  
**eskaintza**

**Goi Mailako Ziklo Formatiboak**

- Administrazioa eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena

**Erdi Mailako Ziklo Formatiboak**

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak

- Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
- Behar diren baliabideekin
- Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen ikasketak
- Eskola publikoa: integratzailea eta plurala


Aurrematrikula epea **ZABALIK:**  
ekainaren 1tik 9ra  
Ohiko matrikula epea:  
uztailaren 1tik 9ra

Berri gehiago nahi baduzu, deitu gure telefonoetara eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu.

# Maiatzaren 22an "Maiatza dantzan" Arrasaten

"Ballet Biarritz" taldeko dantzariek dantza emanaldia eskainiko dute maiatzaren 22an. Arrasateko Amaia antzokian izango da emanaldi hori, arratsaldeko 20:00etan. "Maiatza dantzan" ekitaldien barruan antolatu du Arrasateko saioa Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamentuak.

"Ballet Biarritz" taldea Thierry Malandain izen handiko koreografoak zuzentzen du. Jende gazteak osatzen du taldea, eta herrietan eta nazioartean dantza sustatzeko helburua du. Lau koreografia eskainiko dituzte Arrasaten, eta Mozart eta Benjamin Brittenen musikaren erritmoan, besteak beste, arituko dira.



50 margolan baino gehiago daude Harresi aretoan, ikusgai eta salgai.

## HAURREKIN DANTZAN

Dena den, maiatzaren 19tik 21era bitartean Arrasateko ikastetxe guztietako bederatzi

eta hamar urteko haurrek ballet saioa izan dute eskura. Ballet Biarritz taldeko dantzariak izan dituzte irakasle.

Pazientzia behintzat izan beharko zuten dantzari horiek. Izan ere, guztira 180 inguru ikasle elkartu dira Miarritzeko dantzariekin dantza egiteko. Ekimen honen bidez dantzarekiko zaletasuna piztu nahi da haurrengan, eta zuzeneko ikuskizunetan parte hartzen duten lanbideetara hurbildu nahi dira aldi berean.

Horretaz gain, maila jaso-agoa duten dantzariei zuzendutako eskolak ere eman dituzte "Ballet Biarritz"ekoek.

Maiatzaren 22an, saio nagusia eskaini aurretik, saio berezia ere egingo dute dantzariek, 16:00etan. Saio hori, ordea, Arrasateko bederatzi eta hamar urteko ikasleei eta dantza eskoletakoei zuzendutakoa izango da.

## "Gauzen edertasuna", Amaia antzokian

Wo Widerbergen "Gauzen edertasuna" filmak emango dio bukaera maiatzaren 27an (osteguna) sexualitateari buruzko zine zikloari. 1995ean ekoiztu zen film suediarra, eta orduz gerotik hainbat sari eskuratu ditu: 1996an Zilarrezko Hartza irabazi zuen Berlinen, eta baita Epaimahaiaren sari berezia eta Europako Zine Akademiaren sari handia ere. 1996an Oskarra jasotzeko izendatu zuten, atzerriko filmik onenaren arloan.

Gauzen edertasunak 1943. urtera garamatza, eta Munduko II. Gerran Malmöen gertatzen den istorioa islatzen du. Stig da protagonista nagusia, *Estocol-*



mer gaitzizena duena. Eskolako ikaskideekin sexuaren misterioak argitu nahi ditu Stigek. Bere irakaslearekin, Violarekin, ordua arte inorekin konpartitu ez duena biziko du.

## Pako Aristi Musakolako haurrekin



Hizlari moduan ere bikaina dela erakutsi zuen Aristik.

Musakolako herri eskolan hainbat ekitaldi antolatu zituzten pasa den astean, San Isidroak zirela eta. Asteazkenean Pako Aristi idazlea izan zen bederatzi eta hamar urteko haurrekin. "Jantoki Txinoan" kontakizuna irakurri zuten lehenengo, eta gero idazle urrestildarrarekin solasean izan ziren. Hainbat galdera egin zizkieten haurrek Pakori, jakin-

minez beteta baitzeuden. Ondoren, zintzo asko entzuten zituzten idazlearen azalpenak. Ekitaldia Euskal Idazlearen Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Musakolako ikastetxeak antolatu zuten.


Pako Aristi idazlearen bisitaz gain, Oihulari Klown taldearena ere izan zuten. Txus Kongilek ikasleen gurasoei zuzendutako hitzaldia eman zuten.



HIBAI GARAI, "SOO BITXO" KOMIKIAREN EGILEA

## "Komikiko pertsonaiak errealak dira"

Hibai Garai 17 urteko oñatiarra da "Soo Bitxo" komikiaren egilea. Hies Ekimena taldeak kaleratu du komikia, eta gidioia Jose Iñazio Telleriarena da. Testuaren itzulpena, berriz, Karmelo Uribarrenek egin du. Marrazkien ardura Hibaik izan du, aspalditik marrazteko zaletasuna duen mutilak.



— Nola animatu zinen komikia egitera?

— Oñatiko gaztelekuan graffiti bat egiten ari nintzen, eta Hies Ekimeneko Tellek graffiti ikusi eta gustatu egin zitzaion.

— Aurrez komikirik egin duzu?

— Ez, hauxe izan dut nire lehenengo komikia. Marrazki solteak egin izan ditut, eta baita komiki txikiagoak ere. Hormirudiak eta graffitiak ere egin izan ditut.

— Erraza egin zaizu komikia egitea?

— Hasieran erakargarria, baina era berean zaila ikusten nuen. Ez nekien gai izango ote nintzen, eta gainera epe jakin baten barruan bukatu beharra nuen. Orri bakoitza egiten asteburu oso bat pasatu nuen, baina azkenean gustura gelditu naiz emaitzarekin, erabat ase nau emaitzak.

— Zein prozedura erabili duzu komikia egiteko?

— Lehenik bozetoa egin dut, eta hor orrialde bakoitzean zenbat bineta sartu zehaztu nuen, eta baita bineta bakoitzean zein irudik joan behar zuen ere. Komikia egiteko 8 tamaina ezberdinetako errotulagailuak erabili ditut, handiena 0,5ekoa eta txikiena 0,1ekoa.

— Komikiko pertsonaiak errealak dira?

— Bai. Bitxoa izan ezik, gainontzeko guztiak Arrasateko hainbat herritar dira. Horiiek marrazteko beraiekin harremanak izan ditut, baina erreferentzia nagusienak bideo batetik hartu ditut. Argazkiekin baino askoz hobeto moldatzen naiz bideoarekin, errazagoa baita norberak nahi duen aurpegikera aurkitzea. Argazkia, aldiz, estatikoa da eta ez du horretarako aukerarik ematen.

— Erraza egin zaizu marrazkiak gidolra moldatzea?

— Bai. Lehenengo gidioia irakurri nuen, eta gustatu zitzaidan. Hori funtsezkoa da, gidioiak ezer esango ez balit, zaila egingo bailitzaidake zerbait egitea. Bozetoa egiterakoan, berriz, Tellek asko lagundu dit, bera izan baita gidioia idatzi duena.

— Zein komiki irakurtzen duzu?

— Grumb, Segrelles, Moebius... Asterix eta Obelix ere gustuko ditut.

"Komikiko pertsonaiak egiteko erreferentzia nagusienak bideo batetik hartu ditut"

## aste gazte

### ■ HIZKUNTZA EGONALDIAK

• Diputazioaren kanpainaren barruan, 18-29 urte artekoentzat abuztuaren 1etik 15era Segurako Aterpetxean ingelasa ikasteko aukera. Izen emateko epea: maiatzaren 26tik ekainaren 25era.

### ■ DIRU LAGUNTZAK

• Atzerrian eta udan alemanera, frantsesa eta ingelasa ikasteko diru laguntzak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasleentzat eta aurten deialdi orokorreko beka jasoa dutenentzat. Epea: maiatzak 31.

### ■ LANA

• Arrasateko Udalean, liburuzain laguntzailea eta gizarte laguntzailea nahi dira aldi baterako kontratatuarekin. Epea: maiatzak 25.

• Ordiziako Udalerako, hizkuntza normalizatzaile postua. Epea: maiatzak 27.

• Port-Aventuran udako hila-beteetan lan egiteko aukera. Epea: ekainak 3.

### ■ LEHIAKETAK

• Bidasoako Nazioarteko Film Laburren II. Zinemaldia. Lanak 1998ko urtarrilaren 1aren ondoren eginikoak, gai librean eta 30 minutu baino laburragoak izan behar. Epea: Ekainak 15.

• Arrasateko Gazte Zerbitzuak antolatua, X. Argazki lehiaketa "Gazteak eta 2000. Urtea". Bi maila: Deba Garai-ko 14-18 urte bitarteko gazteak alde batetik eta 19-35 urte arteko edozein pertsona bestetik. Zuri-beltzean nahiz koloretan, beste lehiaketaren baten saritu edo noizbait argitaratu gabeak beharko dute. Epea: urriak 8.

Berri gehiagorako:  
GAZTE ZERBITZUA  
☎ 943 77 00 65



Produktu berriak egiten dituzten enpresak aztertuko dira Ekilanen.



Gloria Agirreurreta eta Maria Aranbarri.

# ATB eskelak ematen hasiko da

Aste honetatik aurrera ATB eskelak ematen hasiko da. Deba Bailarako hildakoen eskelak ikusiko dira, beraz. Egurdiko eta gaueko albistegien ostean emango dira. Norbaitek zerbitzu berri hau erabili nahi izanez gero, 943 71 23 91 telefono zenbakira dei dezake.

## GERRAOSTEKO DANTZARIAK

Maria Aranbarri eta Gloria Agirreurreta 1950ean eskal dantzak erakustera joan ziren Mediterraneora. Grezia, Libano, Alejandria, Jerusalem eta Egiptoko lurralde urrunetan ibili ziren Francoren garaian. Horretaz arituko dira Kar-

mele Zuazubiskarrekin, asteazkenean, gaueko 21:30ean.

## MUSIKLASIK

Iñaki Olaizolak eta Marta Izagirrek aurkezten duten Musi-klasik saioan bi kontzertu izango ditugu. Biak joan den astean izandako emanaldiak. *The Jurassic Band* eta *Errenteria*

*Musikaleko Banda*, asteartean 21:30ean.

## EKILAN

Alberto Gorritibereak ostegunean, gaueko 21:30ean, enpresen inguruko saioa egingo du. Produktu berriak egiten dituzten enpresa txikiak izango dira hizpide.

## ■ ATBren programazioa

LARUNBATA, 22	ASTELEHENA, 24	ASTEARTEA, 25	ASTEAZKENA, 26	OSTEGUNA, 27	OSTIRALA, 28
13:30 Asteko programarik interesgarrienen errepika eta Musakolako jaietako saio berezia.	13:30 Albiste aurrerapena.	13:30 Albiste aurrerapena.	13:30 Albiste aurrerapena.	13:30 Albiste aurrerapena.	13:30 Albiste aurrerapena.
	13:35 Astebete errepika.	13:35 Mondrasport (errepika).	13:35 Musiklasik (errepika).	13:35 Aurrez Aurre (errepika).	13:35 Ekilan (errepika).
	20:00/20:30/21:00 Berriak.	19:20 Jolasplast. Mikel Lizarralde aurkeztutako haur jolasen saioa.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	20:00/20:30/21:00 Berriak.
	21:30 Mondrasport Itxaro Zubillaga kazetariak aurkezturik, asteburuko kirolei errepassoa.	20:00/20:30/21:00 Berriak.	21:30 Aurrez Aurre. Aste honetako gonbidatuak Gloria Agirreurreta eta Maria Aranbari izango dira.	21:30 Ekilan. Alberto Gorritibereak aurkeztutako enpresen inguruko saioa.	21:30 Astebete. Asteazkenean gertatu diren albiste garrantzitsuenen errepassoa Maider Osak aurkezturik.
<b>IGANDEA, 23</b>		21:30 Musiklasik. Marta Izagirrek eta Iñaki Olaizolak aurkeztutako musika saioa.		22:00 Soinu Blai. Iban Gonzalezek aurkezten duen musika saioa.	22:00 Soinu Blai. Iban Gonzalezek aurkezturiko musika saioa.



**Oso ondo egin behar dira  
autoak, bost urterako bermea  
eman ahal izateko**

“3+2 Excellent 5 urteko Bermea” programa berriari esker, Nissanek zure ibilgailuaren ohiko bermea 3 urtetik 5 urtera zabaltzeko aukera eskaintzen dizu orain.

Kosto urri baten truke, bost urtean zehar Nissanen bermeaz gozatu ahal izango duzu, baldin eta edozein ezusteko izaten baduzu.

Ikusten duzu. Nissanen sinestuta gaude autoak ondo egiten ditugula. Gainerako guztiak urteak kentzen saiatzen diren bitartean, guk hartu egiten ditugu.



*Gidatu eta gozatu*

**ALDIBI AUTOAK, S.A.**

ZIGARROLA, 1 - TEL.: 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxebizitza salgai Bergarako erdi-gunean, 70 m<sup>2</sup>. Tel.: 943 76 15 40.

• Etxea salgai Nafarroan, Logroño-tik 18 kolimetrora. 2.500.000 pta inguru. Tel.: 943 79 49 42.

### 3. Errentan emateko

• Bungalowa alokagai Peñiskolan, uitaileko eta abuztuko lehen hamabostaldietan. Tel.: 943 77 05 88.

• Apartamentua eta bungalowa alokagai Torrevejan eta Santa Polan, hondartza ondoan. Tel.: 943 79 32 54.

• Apartamentua alokagai Benidormen. Tel.: 943 79 54 48.

### 4. Errentan hartzeko

• Gela alokagai erdialdean. Tel.: 943 79 87 59. Teresa.

• Gela bat alokatu nahi dut etxebizitza bat osatzeko. Tel.: 945 39 37 50 gauzez, eta 943 79 79 88 goizez. Eder.

• Lau ikaslek etxebizitza bat alokatuko lukete. Tel.: 630 37 61 50 (Andoni).

• Etxebizitza osatzeko bi lagun euskaldun behar dira. Deitu asteburuetan. Tel.: 943 79 93 03.

• Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten. 80.000 pta ordaintzeko prest nago, egoera onean baldin badago behintzat. Tel.: 610 46 78 92.

• Bi ikaslek etxebizitza alokatuko genuke hurrengo ikasturterak. Prest geundeke beste batzuekin ere etxebizitza osatzeko. Tel.: 617 26 32 41 (gauzez) edo 943 67 05 48 (asteburuetan). Josune.

### 5. Etxeak osatzeko

• Gela bat alokatuko nuke erdialdean. Tel.: 943 79 68 00.

• Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da Arrasate erdialdean. 943 79 59 60. Ramon.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

• 15 m<sup>2</sup>ko garaje itxia salgai Larrea kalean. Tel.: 943 79 14 77.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

## LANA

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

## DENETARIK

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdtu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktatuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

**Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.**

• Garaje itxia salgai Iturripe eta Eskola Politeknikotik gertu. 20 m<sup>2</sup>. Tel.: 943 79 34 70.

### 9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokatzen da Erguin auzoan. Tel.: 943 79 13 97.

• Garaje bikoitza alokagai. Tel.: 943 79 13 56. Josu.

• Garaje itxia alokatzen da Musakola aldean. Tel.: 943 77 16 03.

• San Andres auzoan garaje lekuak salgai. Tel.: 608 77 07 86.

### 10. Errentan hartzeko

• Garaje itxia alokatzen da Olarte kalean. Tel.: 943 79 16 39.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• 60 m<sup>2</sup> zabal eta 4 metro garai den lokala salgai edo alokagai. Erdialdean, argitsua. Gaur egun ile apaindegia eta edertze areto bezala erabiltzen da. Bitarte 17, eskuina. Tel.: 943 77 12 70.

### 14. Errentan emateko

• Toki bat alokatzen da Anboto kalean. 75 m<sup>2</sup> ditu. Tel.: 943 79 98 07 (gaueko 21:00etatik aurrera).

• Bi toki alokatzeko, 120 eta 130 m<sup>2</sup>koak, batera edo bakarka, San Andreko industria pabilioietan. Tel.: 608 77 07 86.

• Goxoki denda bat alokatzen da Kontzeiño kalean. Tel.: 943 77 10 97.. 21:00etik aurrera deitu.

### 15. Errentan hartzeko

• Garaje edo toki txiki bat alokatuko genuke. Tel.: 943 79 72 93.

## LANA

### 17. Eskaintza

• Neska euskalduna etxeko lanak egin, umeak zaindu eta pertsona nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo egun osoz. Interesatuak deitu: 943 79 45 16. Bego.

• Esperientziadun emakumeak umeak zainduko lituzke, goizez eta arratsalde. Tel.: 943 79 97 11. Conchita.

• Zazpi urteko esperientzia duen jate-txe zerbitzaria lana egiteko prest. Tel.: 943 77 08 13. Carmen.

• Taberna lan egingo nuke. tel.: 943 76 46 07.

• Neska prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74.

• Emakume euskalduna prest umeak zaindu, etxekolanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tel.: 943 79 07 73.

• Emakume arduratsua umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Tel.: 943 79 54 48.

### 18. Eskaerak

• Neska behar da fruta denda batean lan egiteko. Tel.: 943 77 01 79.

• Ile apaindegia laguntzaile bat behar da, asteburuetarako. Tel.: 943 77 09 44.

• Emakume bat behar da pertsona nagusiak zaintzeko. Harremanetarako dei telefono hauetara: 943 79 66 96 edo 943 79 94 58 (19:00etatik 20:00etara)

• Sukalde laguntzaile edo sukaldean esperientzia duen pertsona behar da, jate-txe batean lan egiteko. Tel.: 943 71 64 70.

• Etxeko lanak egiteko emakume bat behar da. Tel.: 943 79 23 02.

• Zerbitzaria behar da taberna batean lan egiteko. Interesatuak deitu 943 79 61 64 telefonora.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Biologian lizentziadunak kimika eta matematikako eskola partikularrak emango lituzke. Tel.: 943 79 16 39. Amaia.

• Lehen eta bigarren heziketarako eskola partikularrak ematen dira. Tel.: 943 79 83 46.

• Ingeleseko eskola partikularrak emango nituzke. Tel.: 943 79 01 06.

### 21. Eskaerak

• Eskola partikularrak. DBH 4. mailako matematikak hartzeko. Tel.: 943 79 04 89. Idurre.

• Eskola partikularrak emango lituzke neska bat behar da. DBH 3. mailan. Tel.: 943 79 62 08.

• ESoko 1. mailako eskola partiku-

Iarrak emateko pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 60 01.

• Mekanografiako eskola partikularak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 25 10. Igor.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Auto bat salgai Super 5 7-L 1.500. Matrikula SS-AD. Tel.: 943 79 65 43.

• Opel Corsa 16 autoa salgai. Matrikula: V-K. Tel.: 609 28 65 82. 20:00etatik aurrera.

• Yamaha YZ Motocross salgai. 94. urtekoa da, egoera onean dago eta 300.000 pta.tan saltzen dut. Tel.: 943 79 78 36. Unai.

• Peugeot 309, GTI(SS-Z) saltzen dut. Tel.: 943 79 74 65 edo 619 812 090, prezio onean.

• Opel Calibra 2-0i 559203AL salgai. Tel.: 943 71 41 13.

• Motorra salgai. Suzuki GSX 750R. Tel.: 943 79 70 96. Felix.

• Super 5 GTSa salgai, estra eta guzti. Tel.: 649 06 94 71.

• Renault Espace 2.1 TD salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 26 16 / 943 79 68 31 (Urtzi).

• Ford Escort RS turbo salgai. Matrikula SS-AG. Tel.: 943 72 59 90. Gaez deitu.

• Honda Shadow 1100 motorra salgai. Oso egoera onean, estra askorekin. Osagai orijinalak oparitan. 1.180.000 pta. Tel.: 943 00 81 15 (Jabi).

• Volkswagen Golf GTI, SS-AF matrikula, salgai. Tel.: 943 77 04 87 / 670 40 41 20.

• Opel Vectra 2. 0i GT 16V saltzen dut (93ko modeloa), SS-AN. Tel.: 943 79 63 67.

## DENETARIK

### 26. Saldu

• Auñamendiren Euskal Herriko Entziklopedia orokorra ilustratua salgai. Prezio onean eta egoera ezin hobean. Tel.: 943 79 12 95.

• Karabanako ispilu pare bat salgai. la berriak daude eta 5.000 pta balio dute. Tel.: 943 78 12 73. Jaione.

• Pentax Z-1 argazki kamera, 28-80

objetiboduna, eta FTZ-400 flasha saltzen ditut. Oso gutxitan erabilita. Tel.: 943 79 21 35.

• Euskal artzai zakurra, arra, salgai. Tel.: 943 78 34 79.

• Tamaina handiko Conver-13 bat salgai, 8 bat urtekoa, ongi mantendua eta prezio onean. Tel.: 943 79 22 28.

• Yamaha-Clavinova (CLP 360) pianoa salgai. Erabiltzeke dago. Tel.: 943 75 11 70.

### 27. Erosi

• 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. Tel.: 943 71 50 87.

### 29. Eman

• Lau katakume oparitzeko. Nahi duenak, deitu 943 79 97 84 telefonora. Xabi.

### 31. Galdu

• Martxoaren 27an Canon markako argazki kamera galdu nuen Ostarkun. Tel.: 943 77 09 56 (Tania)

• Telefono mugikor bat galdu da Alca-

tel markakoa eta gris kolorekoa: Monterron aldean galdu zen, apirilaren 14an. Aurkitzen duenak deitu 943 79 52 08 telefonora. Eskertuko da.

• Zigorrola eta San Andres artean urrezko belarrirako bat galdu nuen (harri urdin eta zuri batekin) Maiazaren Lehenean. Tel.: 943 79 65 45.

• Maiatzaren 2an, igandean, esku-turreko bat galdu nuen San Andresetik Altamirara bidean. Topatu duenak dei egin dezala, mesedez, 943 79 29 24 telefonora.

• Graduatutako betaurrekoak galdu dira Musakola auzoan. Aurkitu dituenak dei egin dezala, mesedez, 943 79 53 041 telefonora. Sarituko da.

• Neskatala bati urrezko eraztuna galdu zaio. Eraztunak 2 harri txiki ditu eta esparadrapoa darama. Topatu baduzu, deitu mesedez 943 79 84 87 telefonora iluntze aldera.

• Betaurreko graduatuak galdu dira Urribarrin. Tel.: 943 79 95 24. Kar-men.

### 32. Aurkitu

• Urribarri inguruan katu zuria topatu dugu. Jabeak dei egin dezake 943 79 51 21 telefonora.



**ZUZEN-ZUZENEAN  
FABRIKATIK  
ZURE ETXERA**



**Super  
Armeko**

Sukalderako Altzarien Fabrika

Kataide industrialdea • 6. pabilioia • ARRASATE • Tel.: 943 79 91 75



**A**retxabaletako jaietan atera zen argazki hau, 1948an. Gregorio Santa Cruz maisuaren dantza taldea Aretxabaletako jaietan izan zen, Madril en eginiko ekitalditik itzuli ostean.

Goialdean ezkerretik hasita: Maria Aranbarri, Maria

Luisa Agirre, Romana Altube, Rosita Zubillaga, Milagros Zabalo eta Maria Altube.

Behokoak, berriz, honakoak dira ezkerretik hasita: Juanita Bengoa, Resu Velasco, Gloria Agirreurreta, Esther Lopez haurtxoa, Felisa Mendaratx, Carmen Bolinaga eta Juanita Lete.

Talde honek makina bat

bidaia egin zituen iraun zuen artean. Azkenean, Egiptorako bidaiatik bueltan desagertu zen. Maria Aranbarrik hartu zituen irakasle lanak bere gain.

Ordua arte, baina, Gregorio Santa Cruz eibartarra izan zuten maisu. Honek, Gipuzkoako eta Bizkaiko dantzak irakatsi zizkien Arrasateko Sección Femeninan ari ziren nes-

ka gazteei. Garai haietan, Sebero Altuben merkatu plaza zegoen eta hantxe entseiatzen zituzten dantzak. Aste barruan euren kontura aritzen ziren, eta asteburuetan Gregorio Santa Cruz etortzen zitzaizkien laguntzera.

-----  
*Argazkia eta berriemaldek:*  
Maria Aranbarri



## Parques y Jardines

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorazaintzako mantenimendua orohar.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



# altzariak ikustera etortzeagatik.

**Astebeteko** egonaldiak oparitzen ditugu, igerilekua, tenisa, etab. dituen txalet gune zoragarri batean.



TodoMueble edo TodoMueble Kabiara baldin bazatoz zure altzariak ikustera, **7 eguneko oporrak** eskura ditzakezu. Opari zuzenaz edo zozketaren bitartez.

Etortze hutsarekin parte hartu ahal izango duzu. Galdetu bezeroaz arduratzen den gure jendeari.

Eta zure erosketagatik zenbaki asko eskura ditzakezu, edo **zuzenean opor**

**batzuk irabazi**, txalet zoragarri batean, urbanizazio berrian, hondartzatik gertu, tenis jokalekuarekin, igerilekuak, basket, lorategia, petanka, etabarrekin. Astebeteko egonaldi asko ditugu astero oparitu eta zozkatzeko.

Gainera, badakizu **altzari eskaintzarik zabalena** duzula, arreta pertsonala eta profesionala, eta ordaintzeko erraztasun paregabeak:

- **24 hilabetean, interesik gabe, eta 3. hilabetetik ordaintzen hasita** edo  
- **6 hilabetean eta eskura ordaintzeak duen beherapenarekin.**

Oporretarako gogorik bai? **Zatoz lehenbailehen eta aukera itzazu egunik onenak.**



Gipuzkoa Etorbidea, 28 • Tel. 943 79 27 70 • **ARRASATE**



Barrio Anaka (Cruce Porcelanas Bidasoa)  
Tel. 943 61 35 35 • **IRUN**

Ordutegia: 10:15etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara. Zapatuak barne.

**Teknologia eskubide bat da,  
ez da pribilegioa.**



Uste dugu ez duela zentzurik auto bat diseinatzeak, gutxi batzuen eskura egon behar bada. Horregatik geure erronka izan da teknologia, segurtasun eta erosotasun gorena duen autoa sortzea, baina mundu guztiaren eskura. Opel Astra berria. Teknologia eskubide bat delako, ez pribilegioa.

**Serieko ekipamendua:** ABS elektronikoa lau gurpiletara, lagunduriko direkzio elektrohdraulikoa, korrosioaren kontra 12 urteko bermea duen karrozeria galbanizatua, atzealdeko ardatza efektu direkzionalarekin, garaieran eta sakontasunean egoki daitekeen bolantea, gidatzailearen jarlekua garaieran egoki daitekeena, leihoak igotzeko sistema elektrikoa, itxigailu zentralizatua urrutiko agintearekin, tamaina handiko air bag-a gidatzailearentzat, lapurretaren kontrako geldiarazle elektrikoa, funtzio askotarako pantaila:



Modelo hauek daude eskuragarri: 1.6tik 2.0 16v.-ra; turbodieselelan 1.7 eta 2.0 DI 16v. Karrozeriak 3,5 atetan eta Caravan, Bukaera mailak: Club, Comfort, Elegance eta Sportive.

**TALLERES OLA**

**OPEL**  
INGENIARITZA ALEMANA ZUKO

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

Araba Etorbidea, 3.(Eskatu pabiloia). Tel.: 943 79 05 86